

S i n d i k a l H e z i k e t a S a k o n d u z

U.O.
orokorra




8.

Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

LAB
Hezkuntza

Zbkia
 SHK00043
 DOKUMENTAZIO
 ZENTROA



8.

**Babes sozialari
buruzko apunteak,
generoaren
ikuspegitik**

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

Egileak: **Jaione Untzila**

Joseba Mikel Garmendia

Argitaratzailea : **Ipar Hegoa Fundazioa**

ipar · hegoa



EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZI, EKONOMI, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2000ko Ekaina

8.

oro korra

Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

0.- SARRERA

1.- ONGIZATE ESTATUARI BURUZKO TEORIAK ETA "GENEROA" DIMENTSIOAREN AGERPENA.

- 1.1.- Ongizate estatuaren erregimenak
- 1.2.- Ongizate estatuak, kritikak eta ekarpenak generoaren ikuspegitik

2.- ETXEKO FAMILI LANA EDO PRODUKZIO-BIRSORKUNTZA LANA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAREN SORBURUA

3.- EMAKUMEAK LAN MERKATUAN

- 3.1.- Lanaldi partzialeko lana
- 3.2.- Emakume langile autonomia
- 3.3.- Belaunaldi desberdinetako emakumeen lan integrazioa.

4.- BABES SOZIALERAKO POLITIKAK

- 4.1.- Erretiro-, alarguntza- eta umezurtz-pentsioa eta familartekoen aldeko pentsioa
- 4.2.- Langabezi prestazioak
- 4.3.- Amatasuna eta haurdunaldiko arriskuak
- 4.4.- Gutxieneko errentak

5.- EMAKUMEEN POBREZIA ESPEZIFIKOA

- 5.1.- Familien egituraren gertatutako aldaketak

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

Ongizate estatuari buruzko ikerketa sozioekonomiko gehienek ez dute emakumeen egoera aipatzen, ongizatearen eremuan sexuen artean dauden desberdintasunak ahaztu egiten baitituzte. Informazio gutxi dago politika sozialek gizonengan eta emakumeengan dituzten ondorio desberdinei buruz. Izan ere, segurutzat jotzen da ongizatea babestera zuzendutako eskuhartze publikoak onura berdinak ekartzen dituela pertsona guztientzat, beraien generoa edozein delarik ere.

Ongizate estatuari buruz klasearen ikuspuntutik egin diren azterketa tradizionalak lan merkatuaren eta estatuaren arteko harremana aztertzen zuten. Ikuspegi feministak, ordea, "familia(emakumeak)-lan merkatua-estatu" harremana hartzen du ardatz nagusitzat. Hau da, ardatz nagusia lan ordainduaren, ordaindu gabeko lanaren eta ongizatearen arteko harremana da; bertan, ongizatea bermatzerakoan famili estrukturak duen eginkizuna azpimarratzen da bereziki.

Apunte hauek generoaren ikuspuntutik aztertu nahi dute babes soziala, prestazio sozialek lortzerakoan generoak zer-nolako desberdintasunak sortzen dituen ikusteko xedez. Horretarako, lana bost zatitan antolatu dugu:

Lehenik: ongizate estatuari buruzko teoria nagusiak gainbegiratu ditugu, ikuspegi feministetatik egin diren proposamenak eta ekarpenak erantsiz.

Bigarrenik: etxeko esparrua aztertu dugu, beraren ezaugarri nagusiak eta bertan eratzen diren harremanak aipatuz.

Hirugarrenik: emakumeak soldatuko lan merkatura sartzeko prozesua aztertu dugu, haren berezitasunak definituz. Gai hori funtsezkoa izango da babes sozialeko politikek benetan duten eragina ikusi ahal izateko.

Laugarrenik: euskal kasuan aurkitzen ditugun babes mekanismoak aztertu ditugu. Haien deskribapena egin ondoren, mekanismo horiek emakumeen kasuan nola egokitzen diren ikusiko dugu, antzeman daitezkeen gabeziak azalduz.

Bosgarrenik: pobrezia emakumeen artean duen neurria aztertzeari ekin diogu, ongizate estatuaren eskuhartze okerraren adibide bat erakusteko.

Hitzaurre hau bukatzeko biziki eskertu nahi dugu EHUko irakasle Isabel Otxoak, LAB Emakumeen arduradun Itziar Lopategik eta LAB sindikatuko Idazkaritza juridikoaren arduradun Mari Paz Garciak eskaini diguten laguntza.

Ongizate estatuari

buruzko teoriak

1. Ongizate estatuari buruzko teoriak eta "generoa" dimentsioaren agerpena

Orain dela bi hamarkada, ongizate estatuaren garapenari buruzko azterketak "generoa" dimentsioa hasi ziren kontuan hartzen. Harrezkeroztik era askotako ekarpen egin dira horren inguruan. Horri dagokionez, diskurtso feministak lau alderdi nagusi jorratu izan ditu: I) Menpekotasuna edo menpekotasunik eza kontzeptua; II) "publikoa-privatua" dikotomia eta hiritartasuna kontzeptua; III) emakumeen lan ordaindua eta ordaindu gabeko lana; eta IV) zaintza-lanak eta "famili ongizatea". Kasu horietan guztietan, ongizate estatuak funtsezko eginkizuna du, eta be-

raren politika eta eraginak erabakigarriak dira emakumeen egoera sozio-politiko-ekonomikoarentzat.

Politika sozialak sakon aztertzea oso eragin konplexua da, batez ere ondoren aipatuko dugun binomioagatik: alde batetik, politika sozialak gauzatzeko formek eragin nabarmena dute hiritarren generoaren araberako segmentazioan; beste batetik, kontuan hartu behar da generoen rolen inguruan dagoen pertzeptzio orokorra, pertzeptzio horrek determinatu egiten dituelako politika sozialen diseinu eta aplikazioa. Gainera, gogoan izan behar dugu emakumeak ez direla gorputz sozial homogeneoa, ez ideologia mailan, ez klaseko interesen arloan, eta ezta hezkuntza, prestakuntza edo errealtate konkretuei dagokienez ere.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

1.1. ONGIZATE ESTATUAREN ERREGIMENAK

Ongizate estatuen inguruan azken hamarkadotan sortu diren tipologiaren eta ikusmoldeen oinarria onura sozialak eskaintzeko formen arteko alderaketak izan dira: hiritartasun eskubideen arabera, lan merkatuaren bitartez norberak egindako kontribuzioaren arabera, edo beharren arabera. Eztabaidak eta teorizazioak urrats handia egingo dute ezaugarri estrukturalen alderaketak oinarritzat hartzen dituen tipologiari esker. Tipologia hori "Suediako eskolak" garatu du gehienbat, batez ere Esping eta Andersen autoreek.


Azterlan konparatzaileen aurrerapen nabarmen bat "politika sozialeko erregimenak" kontzeptuaren eskutik etorri da, sistema estatal desberdinen ezaugarri koalitiboak aztertzeko era bat eskaintzen baitu. Hona hemen politika sozialeko erregimenak zer diren: "ongizate estatuen horniduran sortutako eredu instituzionalizatuak, estatuaren eta egitura sozialaren artean gatazka, menperatze eta akordio harremanak sortzen dituztenak. Eredu horiek estatuaren baliabideak eskatzeko eskubidea ematen duten terminoak eta baldintzak dira, alde batetik; bestetik, estatuarekiko betebeharrak ekonomiko, sozial eta politikoen termino eta baldintzak. Politika sozialeko erregimenen osagaiak ekonomikoak, legezkoak edo politikoak izan daitezke".¹

"Ongizate estatuko erregimenen" inguruan Esping eta Andersenek prestatu duten tipologiak hiru dimentsio ditu oinarrian: merkaturaren-estatua harremanak ongizatearen horniduran; ongizate estatuak estratifikazio sozialean dituen eraginak; eta hiritartasun eskubide sozialen izaera, berauek "desmerkantilizazio" prozesuan dituzten ondorioak zer-nolakoak diren kontuan hartuz.²

Herrialde industrializatu kapitalistetako ongizate estatuen tipologiak hiru erregimen definituko litzateke, Esping eta Andersenek arabera: kontserbadorea edo kontinentalak (Frantziar Estatuak), liberalak (herrialde anglosaxoiarrak) eta sozialdemokrata (herrialde eskandinaviarrak). Leibfriedek ekarpen berriak egin dizkio aurreko sailkapenari, egitura berri bat proposatzen du eta. Bere eskeman lau erregimen definitu ditu Europako Batasunako politika sozialean (horietako hiruk nolabaiteko antzekotasuna dute Esping eta Andersenek definitutako erregimenekin). "Eskandinaviarrak edo ongizate estatu modernoak" (eredu sozialdemo-

¹Orloff (1996): "Gender and the Welfare State", Working. Instituto Juan March de Estudios e Investigaciones, Madrid.

²"Desmerkantilizazioa" terminoak pertsona eta familien egoeraren adierazle bat izango litzateke,



krataren antzekoak), "bismarktarrak edo ongizate estatu instituzionalak" (kontserbadoreak) eta anglosaxoniarrak edo babes gutxiko ongizate estatuak" (liberalak). Liebfriedek proposatzen duen laugarren eredu "landu gabeko ongizate estatuak" edo "Marko Latindarra" da. Eredu hori Europako hegoaldeko herrialdeetan aurkituko genuke, eta bera da Liebfrieden eta Esping-Andersen enen ereduak desberdintzen dituen.

Erregimen kontserbadorea Europaren erdialdeko herrialdeetan aurkitzen dugu gehienbat; adibidez: Alemanian (modu nabarmenean), Austrian, Italian eta Frantzia. Erregimen horrek indartsuki eusten dio kapitalismoaren garapen ekono-

mikoari, eta familia tradizionala zaintzeko konpromiso sendoa du (familia horrek zerbitzuak eta egonkortasuna ematen di-tuelako). Estatuak bakarrik esku hartzen du familiari agortzen zaionean ongizatea eskaintzeko ahalmena. Programa sozia-len onurak eskuratzera iristeko bide na-gusia lan merkatuan parte hartzea da, ze-ren programa horietako gehienak babes sozialeko sistemaren finantziazioan parte hartu duten -beraien enpresariak bezala-langileengana (eta beraien menpe dau-den familiengana) zuzentzen baitira. Erregimen horretan, beraz, eskubide so-zialak estatus sozialari eta okupazio-ka-tegoriei lotuta daude, eta politika sozialak dagoen estatusaren hierarkia segurtatu eta iraunarazten du. Erregimen horrek

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

subsidiariorotasuna sustatzen du, hau da, eskubideen iturria langile batekiko harrereana da.

Eredu liberala EEBBetan, Kanadan, Australian eta -berezitasun batzuekin- Erresuma Batuan aurkitzen dugu. Bere ezaugarri nagusia da estatuak merkatua bultzatu eta segurtatu nahi duela ongizatea ekartzen duen mekanismo gisa; alde horretatik, ekimen pribatuak sustatzen ditu babes sozialaren eremuan. Lan merkatuan askatasunez jardutearen alde azaltzen da, baina horrek esan nahi du pertsona oro libre dela bere lan indarra saltzearen edo pobrezian ahal den moduan bizirik irautearen artean aukeratzeko. Estatu ongizate pribatuaren erakunde sub-

sidiarioa da, erantzukizun marginal bat baino ez baitu bere gain hartzen. "Baztertutako" eta diru-sarrera gutxiko pertsonen asistentzia sozial minimo bat eskaintzen die, baliabide eskasekoa eta estu kontrolatutako arau batzuei atxikia. Erreforma soziala mugatuta dago lanaren etika sendo eta tradizional baten bitartez. Egiten duena da gutxieneko onura eta zerbitzuak eskaintzea lan merkatuan ezin integratuzkeen pertsonen, soil-soilik beste aukerarik ez dutenean.

Eredu sozialdemokrata Eskandinaviako herrialdeetan garatu da, batez ere Suedian. Aurreko ereduak ez bezala, berdintasuna goiko estandarretara eramane nahi du, bere gizarte eredia berdintasunean



eta unibertsaltasunean oinarritzen delako. Hala, eredu horrek ez du merkatua zerbitzu sozialen hornitzailetzat hartzen; aitzitik, elkartasun unibertsala bultzatzen du, famili biziaren zamak gutxituz eta gizabanakoen independentzia ahal bezainbeste babestuz. Horregatik, zaintza-lanen ardura handi bat hartzen du bere gain, emakumeen lan-partehartzearen prezio soziala gastu publiko handi bat dela onartuz. Horrek zera adierazten du: eredu horrek zerbitzuen eskaintza bultzatzen duela diru-transferentziak baino gehiago. Hiritartasuna kontzeptuaren oinarria lan merkatuan parte hartzea da, ez gizabanakoen eskubideak. Erregimen sozialdemokratak abantaila gehiago ekartzen dizkie emakumeei.

"Landu gabeko" ereduak Espainiar Estatuan, Portugalen, Grezian eta -ñabardura batzuekin- Italian aurkitzen dugu. Estatu horiek ez dira oraindik ere ongizate estatu modernoak, horretarako errota egin behar direlako lege, instituzio eta gizarte mailan. Alderdi batzuetan eredu anglosaxoniarraren antzekoak dira, baina, horietan ez bezala, euren oinarrian ongizateari buruzko tradizio erlijiosoak daude, eta euren lan merkatuek zerikusi gutxi dute Erresuma Batuko, EEBBetako eta gisa be-


reko herrialdeetako lan merkatuekin. Eredu horretako herrialdeek famili egitura sendoak dituzte, euren jaiotze tasa txikia da eta ezkutuko ekonomiak pisu handia du; gainera, gehienek langabezi tasa handiak dituzte. Lan merkatua segmentatuta dago sexuen arabera³. Autore batzuek azken eredu horrekin identifikatzen dute Estatu Espainiarrak; beste batzuek, ordea, eredu kontserbadoretik hurbilago dagoela diote.

Nolanahi ere, pertsona horiek guztiek egin dituzten deskribapenek harrera ona jaso dute, nahiz eta -jakina- kritikak ere piztu dituzten; kritika horiek, baina, ez dute esaten deskribapen eta sailkapenak okerrak direla, baizik eta osatu gabeak edo desegokiak direla. Guri interesatzen zaigunerako, esan beharra dago eske-mak "itsu daudela sexuaren aurrean", neurri handiagoan edo apalagoan, nahiz eta onuragarririk diren harreman sozial publiko-pribatuak hobeto ulertzeko. Emakumeak analitik desagertzen dira lan merkatuan parte hartzen ez dutenean -edo, gutxienez, gizonen baldintza berberetan parte hartzen ez dutenean-, zeren etxeko lanak eta zaintza-lanak ez baitute inolako garrantzirik eskema horietan. Generoa ez da era sistematikoan

³ "Landu gabeko" ereduak duten herrialdeen ustezko homogeneotasun hori zehaztu beharrekoa da; izan ere, beste azterlan batzuek diote euren arteko diferentziek eragotzi egiten dutela herrialde horiek multzo berean sailkatzea.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

sartzen, dimentsio moduan, aipatutako hurbilketa horietan. Era horretan, generoa ez da faktore garrantzitsua ongizate estatuaren eredu determinatzerakoan, nahiz eta emakumeekin gertatzen denak oinarritzko adierazlea izan beharko lukeen gizartearen antolaketa nolakoa den eta politika sozialak zer-nolakoak diren jakiteko.



1.2. ONGIZATE ESTATUAK, KRITIKAK ETA EKARPENAK GENEROAREN IKUSPEGITIK.

Proposamen eta kritika ugari egon arren bi multzo egin daitezke, metodologia eta kontzeptualizazioa irizpidetzat hartuta: multzo batek Esping eta Andersenren paradigma hedatu nahi du, bere egituraren generoa kategoriatan moduan txertatuz. Beste multzoak, berriz, bestelako tipologia eskaintzen ditu, karakterizazio irizpide desberdinak erabiliz.

Aurreko ekarpenak erreferentziatzen harturik, sexu-berdintasuna lanean eta ongizatean neurtzen duten adierazleak erakitze garrantzitsutzat jotzen ditugun alderdi eta kontzeptu batzuk aipatuko ditugu jarraian. Hori lagungarria izango zaigu politika sozialeko erregimenak geure ikuspuntutik aztertze, klase soziala aldagai nagusitzat hartzen duten azterketa tradizionalak alde batera utziz.

Logikoa denez, geure errealitatea hartu behar dugu abiapuntutzat: bertoko lan merkatua gizonezkoen ereduaren arabera dago oraindik ere egituratuta; lana sexuaren arabera dago banatuta, halako moldez non emakumeek famili lana hartzen duten euren gain; emakumeek estatuarekin duten harremana -hiritar, langile eta bezero gisa- ez da gizonek duten berdina; eta gure politika sozialek -itxuraz

neutroak izan arren- ez dute sexuen arteko berdintasuna bultzatzea xedetzat hartzen, zeren lanaldi osoko langileak babesten baitituzte gehiago, lan merkatuan parte hartzen ez dutenak edo lanaldi partzialeko lanak dituztenak baino. Hau da, ongizate estatuaren jarduna sexu baten aldekoagoa da oraindik ere; desberdintasun hori ez da betiko azterketetan islatzen (klasearen ikuspegitik egindako azterketetan, alegia), azterketa horiek berdintzat jotzen dituztelako gizonak eta emakumeak politika sozialen aurrean.

Kontuan hartu behar den lehen alderdi garrantzitsu bat "merkatua-estatua" eskema baztertzea eta haren ordeztu "merkatua-estatua-familia" eskema jartzea da. Hau da, soldatuko lanaren (soldataz ordaintzen den lana) etxeko famili lanaren eta ongizatearen arteko lotura aztertu behar da, baina instituzio horien arteko benetako lotura azpimarratu eta determinatzen duen genero estruktura beren-beregi teorizatuz. Horrek esan nahi du errealtate bat aitortu behar dela, hots, herrialdeek ez dutela ongizatea merkatuaren eta estatuaren bidez soilik antolatzen, baizik eta baita famili egituren bidez; aitortu behar da, halaber, famili egitura horiek funtsezko rola hartzen dutela, normalean ezkututzen bada ere.

Politika sozialek generoaren araberako estratifikazioan dituzten eraginei buruz be-

rriki argitaratu diren lan nagusietako bat Lewisena da (1992); autore horrek ongizate estatuaren tipologia bat egiten du bertan, familiaren eta etxearen barnean emakumeek egiten dituzten zaintza-lanak irizpidetzat hartuta. Alde horretatik, Lewisek esaten du ongizate sistemen sailkapenaren kategoria analitiko nagusiak lan ordainduarekin, ordaindu gabeko lanarekin eta babes sozialeko neurriekin emakumeek dituzten harremanak direla.

Lewisena beste autore feminista batzuen abiapuntu berbera du, hots: orain arte proposatu diren tipologiak kritikatu egiten ditu, generoa baztertuta utzi dutelako eta klasearen araberako estratifikazioa azpimarratu dutelako. Tipologia horietatik, laurogeita hamarrek hamarkadako ezagunena eta erabilitakoa Espingek eta Andersenek (1990) proposatu zutena da, lehen esan dugun bezala.

Lewisek aipatzen duenez, Esping-Andersenen tipologiaren oinarria ongizatearen eta lanaren harremana da, kontuan harturik lan hori lan ordaindua dela, eta ongizatea lan ordaindua desmerkantilizatzerazuzendutako politika publikoak. Kategoria analitiko horrek arazo bat du ongizate estatuak sailkatzeko, aditu askok aipatu duten bezala: ez dituela kontuan hartzen famili egiturek -emakumeek batik bat ongizate zerbitzu ugari eskaintzen eta betetzen dituztela. Gainera, desmerkan-

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik



tilizazioak esanahi desberdinak izan ditzake gizonentzat eta emakumeentzat, zeren lan merkatuan parte hartze soilak ez baititu emakumeak ordaindu gabeko beste lan batzuetatik ezinbestean askatzen (zaintza-lanak egitearen edo ez egitearen artean hautatzeko aukera). Izan ere, etxeko lanak bi generoen artean ez banatzeko joera ez da ezein herrialdetan aldatu, ezta goi mailako hezkuntza edo diru-sarrera handiagoak dituzten pertsonen artean ere, halako moldez non emakumeek gizonak baino askoz ere ahalegin handiagoak jarraitzen duten egiten.

Lewisek (1992) proposatzen du lan or-

dainduaren, ordaindu gabeko lanaren eta transferentzien eta zerbitzu sozialen arteko harremanak neurtzea. Harreman horien neurketaren bidez "zaintza-erregimen" desberdinak identifikatuko lirateke. Erregimen horiek ez dira zertan izan Esping-Andersenek "ongizate erregimen" berberak. Bere lehenengo sailkapena berraztertzean, emakumeentzat ongizatea zer ote den galdetu behar dugula dio Lewis (1997). Adibidez: ordaindu gabeko lan bat egiten duten emakume zaintzaileei prestazio ekonomikoak emanez gero, zaintza-lanak bereziki emakumeengana zuzendutako lan batekin identifikatzera jo genezake, emakumeen kal-

terako. Lewisek dio, gainera, ongizate estatua erraztu egin beharko lukeela -modu idealean- zaintzearen eta ez zaintzearen arteko aukeraketa, eta, gisa berean, lan ordaindu bat egitearen eta ez egitearen arteko aukeraketa. Era horretan, "desmerkantilizazioa" terminoaren ordez "desfamiliarizazioa" terminoa jartzearen aurka azaltzen da, zeren termino horrek esan nahi izango bailuke emakume guztiek zaintza-lanak abandonatu nahi dituztela; hori, haatik, ez dator bat benetan dauden lehentasunekin.

Ordaindutako zein ordaindu gabeko zaintza-lanei buruz hitz egitean, autore feministek gogoan izaten dituzte tipologia klasikoek sistematikoki ahazten dituzten jarduerak. Zaintza-lan horiei benetan me-rezi duten arreta eskaintzeko honako dimentsio hauek hartu beharko lirateke aintzakotzat: gizabanakoen eskubideen garapen maila edo hiritartasuna kontzeptua; menpeko pertsonentzat dauden prestazio publikoen neurria (pertsona horien autonomia maila); lan ordainduaren aurrean emakumeek duten jarrera; zaintza-lanak nork egiten dituen (lan horiek etxean barnean nola banatzen diren). Hori guztia baliagarria izango litzateke ongizate estatuaren izaera ezagutzeko, hau da, ezagutzeko noraino tratatzen dituen emakumeak eta gizonak berdintasunez, hiritarrak diren aldetik, eta, halaber, ea etxeko eta laneko ardurak bateratzeko au-

kerak eskaintzen dituen eta emakumeei hautatzeko aukera eskaintzen dien.

Estatuaren egitura ideologikoari dagokionez, beste adierazle batzuen artean kontuan hartu beharko genuke zein diren ongizate estatua babesten dituen arriskuak, hala gizonen nola emakumeen kasuan, eta, horrekin batera, babes hori nola gauzatzen den, hau da, ea gizarte segurantzaren bidez eskuratzen den ala alderantziz- asistentzia moduan lortzen den. Desberdintasun hori garrantzitsua da, zeren babesa eskuratzeko formaren arabera "emakumeen arriskuez" eta "gizonen arriskuez" hitz egin baitaiteke herrialde gehienetan. Aurrekoez gain badira kontuan hartu behar diren beste puntu batzuk, hots: ongizatearen "titularra" izateko zer-nolako baldintzak bete behar diren, titulartasunaren unitatea (familia, gizabanakoak) zein den programa bakoitzerako, eta zaintza-lanak zer-nolako eskubideak ematen dituen soldatako lanaren aldean.

Oro har, garbi ikus daiteke emakumeak gehiegi kontzentratzen direla asistentzia sozialeko onuradunen taldean, gizon gehienak soldatako lanaren bidez eskuratzen den gizarte segurantzako onuradunak diren bitartean. Emakumeen lanpartehartzea igotzearekin batera gora egin du gizarte segurantzaren parte-hartzeak ere, baina neurri txikiagoan,

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

emakume askoren lanak lanaldi osoko lan egonkorren eskubide berberak ez dituzten lan ezegonkorrek direlako (lanaldi partzialekoak, aldi baterakoak...). Horren eraginez, emakumeek menpekotasun-harreman handiagoa izaten dute.

Gizarte segurantzako sistemek emakumeak nola tratatu dituzten, haurrengana zuzendutako zerbitzuen hornidurak nola funtzionatzen duen eta ezkontutako emakumeek lan merkatuan duten jarrera zer-nolako den ikusteko, Lewisek proposatzen duen eredu bat har dezakegu adierazle gisa: gizonezkoa "famili buruztat" (gizona da etxeko diru-sarreraren gehienak ekartzen dituen) hartzen duen eredia, alegia. Eredu horrek -bere forma idealean- erakusten duen emakumea lan merkatutik kanpo dago, senarraren menpe -gizarte segurantzaren onuradun bezala-, eta ama eta emazte den aldetik dagozkion lanak egiten ditu inolako laguntza publikorik gabe. Autore horren abiapuntua lan ordainduaren, ordaindu gabeko lanaren eta ongizatearen artean dagoen harremanaren analisia da; horren bidez, lau alderdi aipatzen ditu generoa kategoriatzat hartzeak duen garrantziaz: lehenik, ongizate estatu modernoetan emakumeek jaso dituzten laguntzak emazte eta amak izateagatik jaso izan dituzte. Bigarrenik, ongizate estatuak sortzen dira esparru publikoen eta pribatuen arteko mugak oso zehaztuta daudenean, batez

ere diskurtso sozial, politiko eta kulturalen. Hirugarrenik, gizona "famili buruztat" hartzen duen eredia ongizate estatu modernoan oinarria izan da, nahiz eta eredu idealak aldaketa izan dituen herrialde batetik bestera. Laugarrenik, gizarte segurantzako sistemek eta euren funtzionamendu erak garrantzi handia dute, batez ere sistema dual bat dagoenean (asistentzia sozialarekin), zeren normalean genero mekanismo batek operatzen baitu: gizona gizarte segurantzaren onuradun nagusia izaten da; emakumea, berriz, asistentzia sozialarena. Aurrekoaren arabera, eredia hiru mailatan ager daitekeela dio Lewisek: "sendoa", "moderatu" eta "ahula". Lewisen lanaren emaitzen artean bada azpimarratu beharreko bat, hots: ongizate estatuak generoaren ikuspegitik aztertzeak nahiko aldatzen dituela beste ikuspegi batzuetatik egindako azterketen emaitzak, hain zuzen ere soldatiko lana eta klase-harremanak soilik kontuan hartzen dituzten azterketen emaitzak.


Eredu "sendoan" nahiko txikia da emakumeen lan partehartzea, eta partehartze hori lanaldi partzialeko lanetan ematen da gehienbat; ez dago haurrak zaintzeko zerbitzurik, ezta amatasun eskubiderik ere, eta adineko gizonen eta emakumeen egoera desberdinean daude gizarte segurantzaren aurrean. Oro har, emakume nagusiak menpeko emazte bezala tratatzen dituzte titulartasun sozialekin zerikusia du-

→ Ongizate estatuari buruzko teoriak eta "generoa" dimentsioaren agerpena

ten gaietan. Garbi bereizten da zein den erantzukizun pribatua eta zein publikoa. Emakumeak sartzen baldin badira esfera publikoan soldatako langile bezala, gizonezkoen baldintza berberetan egin behar izaten dute, baina, aldi berean, etxeko lanen ardurei eutsi behar diete, familiarenak direla ulertzen delako, hau da, emakumei dagozkiela ulertzen delako.

Eredu "moderatuan", lan merkatuan parte hartzen duten emakumeek lanaldi partzialeko lanak izan ohi dituzte; gizarte segurantzako sistemak seme-alabak dituz-

ten eta ez dituzten familien arteko birbanaketa horizontal bat egiten du, birbanaketa hori aberatsen eta pobreen artean egin beharrean. Emakumeek sistema horren onurak aprobetxatzen dituzte, baina ez modu zuzenean, zeharkakoan baizik. Amatasuna eginkizun sozialtzat hartzen da, zeregin pribatutzat hartu beharrean. Hala, emakumeek estatusa irabazten dute ama eta langile bezala. Famili onura asko -jaiotza-tasa igotzearen aldeko politiken bidez legitimatuak- soldatei daude lotuta, eta, hortaz, ez dagozkie beti emakumei.



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik



Eredu "ahularen" ezaugarri nagusia hauxe da: familiaren diru-sarrerak bi pertsonak ekartzen dituztela, modu nahiko simetrikotan. Emakumeak langile bezala tratatzen dituzte, eta ordaindu gabeko lana ere modu batean edo bestean konpentsatzen da. Zerbitzu sozialen maila nahiko ona da, batez ere haurren zaintzari dagokionez, eta, horri esker, errazagoa da lan ordaindua eta ordaindu gabeko lana bateratzea. Edonola ere, azken zeregin horrek emakumeen ardua jarraitzen du izaten, gizonen jokatubidea ez baita fitsik ere aldatu.

Euskal Herriko babes sozialaren eremu-ko politikak aztertzeari ekin baino lehen, politika sozialen benetako neurria determinatuko duten bi esferak aztertuko ditugu sakonago: etxeko esparrua eta soldatako lan merkatua edo merkatuak.

Etxeko famili lana edo produkzio-birsorkuntza lana

2. Etxeko famili lana edo produkzio-birsorkuntza lana: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren sorburua

Gizarte kapitalistan, soldatako lanak (enplegua) merkantzien forma hartzen duten ondasun eta zerbitzuak produzitzen ditu; ordaindu gabeko etxeko lanak, berriz, familiaren autokontsumora zuzendutako ondasun eta zerbitzuak produzitzen ditu, eta gizakion bizitza mantentzen eta sortzen duen zentroa da. Aurrekoaren ondorioz, bi jarduerak esparru bereiztuetan garatzen dira (esparru publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia). Birsorkuntzaren esfera

produkzioaren esferatik datorren eskariaren zerbitzuan dago.

Produkzio, lan, lan-indar eta gisa bereko kontzeptuen betiko definizioek gizartearen produkzio-jardueraren zati bat baino ez dute aipatzen: produkzio kapitalistaren harremanen menpe egiten den produkzio-jarduera, hau da, merkatuaren mekanismoen barnean egiten dena, eta horixe da, hain zuzen ere, gizonei sozialki egokitzen zaiena. Horregatik, merkatuaren esferatik kanpo pertsonak (emakumeek batik bat) gauzatzen dituzten lanak ez dira "ekonomikotzat" jotzen, eta, hortaz, lan horiek egiten dituzten pertsonak ez dira aktibotzat jotzen. Jarduera ekonomikoaren erdigunea merkataritza da; etxeko jarduera, berriz, beste jarduera horren subisidiario eta menpekoa da.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

"Jarduera ekonomikoa kontzeptuak pertsonen biziraupenera eta birsorkuntzara zuzendutako ondasun eta zerbitzu guztiak hartu behar ditu barne, haien produkzio-harremanak edozein direlarik ere" (Benería 1988) ⁴. Horrek esan nahi du emakumeen rol ekonomikoa modu egokian kokatu behar dela, eta, aldi berean, produkziara eta birsorkuntzara zuzenduta etxean egiten diren lanei euren benetako kategoria analitiko eman behar zaiela.

Izan ere, etxeko produkzioak sortzen dituen ondasunei esker sistema kapitalistak aukera izaten du gastu soziala mugatzeko (haur, gaixo eta adinekoentzako asistentzia, etab.) eta soldata txikiagoak ordaintzeko. Gainera, emakume lan-indarraren birsorkuntzaren iturriklase sozial baten barnean gizarteratzen da eta errazago onartzen du bere rola bereganatzea eta klase horren kidezate.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko oztopo handi bat lana sexuen arabera banatuta egotetik dator, hala esfera pribatua no-la publikoan. Etxeko/familiako lanaren ardura emakumeen esku dago oraindik

ere, berriki eskaini ditugun datuek erakusten dutenez. Faktore horrek, politika sozial egokien faltarekin batera, emakumeen partehartzea mugatzen du lan, gizarte eta politika mailan, gizonen baldintza berberetan parte hartzeko nahia zapuztuz. Egia da, dena dela, emakumeak gero eta gehiago sar-tzen ari direla lan merkatuan, eta horren bidez aldatetako bultzatzen ari direla lan merkatu horretan eta etxeko esferan.


Illo horretatik jarraituz, esanguratsua da EAEko Etxeko Produkzioari buruz Eustatek egin dituen Kontu Sateliteen emaitza batzuk ikustea. Lehenik eta behin, "euskal etxeetako produktiotik BPGan kontatu ez den zatia 2,2 bilioi pezetakoa izango litzateke, hau da, Barne Produktu Gordinaren %40a, 1993an baino hamar puntu gutxiago" ⁵. Zenbateko hori OCDEko erreferentzi herrialdeetako zenbatekoen erdian egongo litzateke, zeren herrialde horietako muturreko zenbatekoak %31 eta %68 baitira.

Bigarrenik, etxe barnean balio erantsirik handiena sortzen duten eginkizunak "janaria eskaintzea" (%44,9) eta "bizilekua eskaintzea" (%31,6) dira, eta beraien atzean "haurrak eta adinekoak


⁴ Cristina Borderías: Cristina Carrasco: Carmen Alemany (bil.). "Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales". ICARIA: FUHEM, DL. Bartzelona, 1994.

⁵Eustat. 2000/05/29ko prentsa oharra

**EMAKUMEEN PARTEHARTZEA ETXEKO PRODUKZIOAN,
EGINKIZUNEN ARABERA. 1993-1998**



**GIZONEN PARTEHARTZEA ETXEKO PRODUKZIOAN,
EGINKIZUNEN ARABERA. 1993-1998**



Iturria: Eustat. 2000/05/29ko prentsa oharra.

8. Apuntes sobre la protección social desde la perspectiva de género

zaintzea" (%14,1) eta "arropa zaintzea" (%9,5).

Hirugarrenik, etxeko produkzioan gehien parte hartzen dutenak emakumeak dira -%74,4-, gizonak -%25,6- baino askoz ere gehiago. Emakumeen neurri handiko partehartze hori 4,9ko puntutan (ehuneko puntuak) murriztu da 1993tik.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere urrun gaude antzeko estatistiketan Kanadak (%63), Australiak (%66), Zeelanda Berriak (%65), Norvegiak (%66) edo Suitzak (%67) erakutsi dituzten ehunekoe-tatik⁶. Ondorengo grafikoetan erakusten dugu emakumeen eta gizonen partehartzeak etxeko produkzioaren eginkizunetan izan duen bilakaera.

Laugarrenik, etxeko produkzioak BPGan zuen partea 1993-1998an 10 puntutan murriztu izanak joera kontrazikliko bat adieraz lezake, hau da, "merkatu-

ko ekonomiaren ziklo ekonomikoak go-ra egiten duenean, baliabideak hartzen ditu etxeko produkzioetik, euskal ekonomiari 1998an gertatu zitzaion bezala; beheraldietan, ordea -1993an bezala-, kontrakoa gertatzen da, merkatuko ekonomiatik baliabideak bideratzen baitira etxeko ekonomiara"⁷.

Merkatuko lana da oraindik ere lan moduan aitortu eta baloratzen den jarduera bakarra, bai gizartearen eta bai legearen ikuspuntutik; etxeko lanak eta zaintza-lanak, beraz, "emakumeen" kontua dira, gauza beharrezkoa baina aldi berean marjinala. Hori horrela izanik, etxekoandreak (denbora osokoak) biztanleria ez aktiboan sailkatzen dira, ikasle, jubilatu, pentsiodun, minusbaliatu eta beste batzuekin batera.

Ondorengo koadroan Hego Euskal Herriko jarduera tasen bilakaera ikus dezakegu, sexuaren arabera bereiztua.

HEGO EUSKAL HERRIKO JARDUERA TASA

| | 1986 | 1996 | 1997 | 1998 |
|-----------|------|------|------|------|
| EMAKUMEAK | 28,0 | 36,4 | 37,5 | 37,8 |
| GIZONAK | 71,2 | 65,1 | 63,0 | 63,2 |

Iturria: Erroldak (1986 eta 1996) eta INE (1997 eta 1998)

⁶ Estatistika horiek honako urte hauei dagozkie: Kanadakoa 1992ri, Australiakoa 1992ri, Zeelanda Berrikoa 1991ri, Norvegiakoa 1990ari, Suitzakoa 1997ri.

⁷ Eustat. Berdin.

→ Etxeko famili lana edo produkzio-birsorkuntza lana: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren sorburua

Ikus daitekeenez, Hego Euskal Herriko emakumeen %62ri ez zaie euren lanaren balioa aitortzen, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko etxe barnean egiten dituzten ahaleginak ez direlako produkzio-lantzat hartzen. Emakume horiek ez dute lan eskubiderik, eta, hortaz, ez dute inolako prestaziorik jasoko Estatuaren aldetik; kasurik onenetan munta gutxiko dirulaguntza batzuk jasoko dituzte, eta horrek menpekotasun

ekonomikoa eta/edo pobrezia sortuko die ezinbestean.

Emakumeek lan merkatuan duten zuzeneko partehartzearen tasa etengabe igo da azken 20 urteotan. Hala eta guztiz ere, emakumeen jarduera tasa Europako Batasunako 15 herrialdeetan zerenolako den ikusirik (ikus ondorengo koadroa, tasa horiek ordenaturik azaltzen baititu), garbi dago oraindik ere urrun

EUROPAKO BATASUNEN JARDUERA TASAK

| | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|------------------|-----------|---------|
| Italia | 34,8 | 61,8 |
| Grezia | 36,2 | 62,9 |
| Espainiar Estatu | 36,7 | 62,3 |
| Luxemburgo | 38,1 | 64,7 |
| Belgika | 41,1 | 60,7 |
| Irlanda | 42,7 | 68,5 |
| Alemania | 48,2 | 67,9 |
| Frantziar Estatu | 48,2 | 63,3 |
| Austria | 48,7 | 69,1 |
| Portugal | 49,4 | 67,1 |
| Holanda | 50,6 | 71,5 |
| Erresuma Batua | 53,2 | 70,8 |
| Finlandia | 54,9 | 65,9 |
| Suedia | 56,5 | 65,3 |
| Danimarka | 59,0 | 72,1 |
| EB 15 | 45,6 | 65,9 |

Iturria: Eurostat (1997)

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

gaudela batez besteko tasatik (%45,6) eta herrialderik garatuenen tasatik.

Emakumeak lan merkatura sartzen diren heinean, etxeko lanaren arazoa arazo sozial bihurtzen da poliki-poliki. Bi lan horiek egiteak (lanaldi bikoitza) dimentsio berri bat dakarkio emakumeen denborari, eta haien etxeko lana (ez guztia) agerian geratzen da gero eta gehiago; nolana ere, etxeko lan hori bakarrik baloratuko da ordezeko onak aurkitzen baldin baditu merkatuan; zaintza- eta laguntza-lanak, ordea, ikusezin izaten jarraitzen dute. Lan horietan ematen dute emakumeek denbora gehien (emakumeen bizimodua mugatu eta baldintzatzen dute, funtsean), eta emozioen esparruko zaintza edo arreta pertsonal horietan erabilitako denbora hori ez da laudaitzat hartzen. J. Tweediek dioenez:

"Semea ospitalera eraman behar dugu eta bertan lau orduz egon berarekin, egonaldia goxoagoa izan dakion. Alaba batek urtebetetze jai bat behar du bere 15. urtea ospatzeko. Amaginarrebari idatzi behar zaio, familiaren berriak kontatzeko eta orkatilan egin zuen bihurri-

tua sendatu ote zaion galdetzeko. Eskolara joan behar da irakaslearekin hitz egiteko. Ahizpa batek laguntza behar du, berehala bananduko delako, eta neba batek norbait behar du bere alboan, laster langabeziara joango delako. Iloba batek arrosondoan zorriei buruz hitz egiten du, bere bakardadea arindu nahirik. Senide batek oinetako ortopedikoak itzuli behar ditu dendara. Lagun batek umezain bat behar du, medikuarenera doan bitartean semea zain diezaion. Beste lagun batek aholkua behar du arazoak dituen seme baten inguruan... Badirudi itsuturik gaudela eta ez dugula ikusten jardunean dagoen eta egoera zailetan erantzuten duen sare hori; nolana ere, hain da beharrezkoa gizakion ongizaterako eta bizitza bera mantentzeko, ezen zerbait naturalizat jotzen dugun, ia arnasa hartzea bezain naturalizat. Eta sare hori emakumeek osatu, lotu, eraiki, apaindu, bideratu eta eskaintzen dute, ezer kobratu gabe, etxean, maitasunez eta arretaz. Haiengatik (eta lana izan arren sarean ere -emakume direlako- diharduten emakumeengatik) izango ez balitz, uste dut bizi zibilizatu, gaur egun ezagutzen dugun tankeran, kolapsatuta egongo litzatekeela"⁸.

⁸ J. Tweedie, "The Unacknowledged Network that makes the world go round", Selma James-en *The Global Kitchen* liburuan aipatua. Crossroad Books, 1995eko abuztua. (Cristina Carasco, "Women, Work and Health" biltzarraren txostena. Bartzelona, 1996ko apirila)

Emakumea

lan merkatuan

3. Emakumea lan merkatuan

Emakumeak gero eta gehiago sartu dira lan merkatuan azken hamarkadotan, nahiz eta aurrerapen horrek hobekuntza gutxi ekarri dituen beraien lan baldintzetan. Emakumeek lan merkatuan pairatzen duten bereizketa/diskriminazioa oso nabaria da oraindik ere, lan honetan aipatuko ditugun arrazoiengatik.

Emakumeen lan integrazio asimetrikoari begiratzeko modu bat lan merkatuaren segmentazio dualaren hipotesia erabil-

tzea da. Ikuspegi horrek laurogeiko hamarkadaren erdian Doeringer eta Piorek egin zituzten lanak ditu abiapuntutzat.

Modu laburrean esateko, korrante instituzionalistak dio lan merkatuan bi segmentu bizi direla aldi berean eta bereiztuta: lehenengo segmentuan soldata nahiko onak daude, lan baldintza egokiak, enpresan igotzeko aukerak, autonomi maila handi samarrak eta enplegu egonkorra. Bigarren segmentuan, berriz, soldatak txikiak dira, lan baldintzak txarragoak, ez dago enpresan igotzeko edo hobetzeko aukerarik, laneko arauak pertsonalizatuta daude, eta enplegua ezegonkorra da⁹.

⁹ Eskema hori osatzeko hiru multzo bereiz daitezke lehen segmentuaren barnean (goiko segmentua, profesionalak eta beheko segmentua); sailkapen horrek nabardura esanguratsuekin aberasten ditu "lehen segmentua" izenekoaren elkarloturak eta funtzionatzeko logikak.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

Bereizkuntza horren muina ez da enplegu onen eta txarren arteko desberdintasuna, baizik eta bi segmentuen funtzionamenduaren logikak guztiz diferenteak direla. Lehen segmentua "barneko lan merkatuarekin" identifika dezakegu, kontzeptuaren edukia azaltzeko: segmentu hori babestuta dago lan merkatu neoklasikoaren lehia-endarretatik. Hori bi modutan azalerazten da: alde batetik, hutsik geratzen diren lanpostuak barne promozioaren bidez betetzen dira, eta, hortaz, enpresatik kanpo dagoen lan merkatuaren eragina txikiagoa da; beste batetik, ezaugarri horiek dituzten enpresetan -normalean industriako enpresa handiak- arau instituzional multzo batek lehentasuna du merkatuaren arauen aurretik.



Bigarren segmentuaren funtzionamenduari dagokionez, eskaintzaren eta eskariaren indarrek askoz ere eragin handiagoa dute, eta, horrenbestez, askoz ere handiagoa da langabezi tasek, lana malgutzeko politikek, lan eskubideen inguruan enpresek azaltzen duten agintekeriak eta gisa berekoek duten eragina. Horrez gain, kontratuen ezegonkortasuna hartu behar da kontuan. Beraz, funtzionamendu horren oinarria "lana-langabezia-lana" errotazioaren fenomeno da; emakumeen kasuan, gainera, "lana-langabezia-jarduerarik eza" aldaera gehitzen da. Gero ikusiko dugunez, errotazio horrek ondorio bitxiak ditu babes sozialaren mailan.

Ikusi ahal izango dugunez, emakumeen lan integrazioa bigarren segmentuan egiten da gehienbat; horregatik, errotazioaren dinamika nabarmen horrek, kobrazten diren soldata txikiek eta kotizazio oinarri txikiek ondorio negatiboak izango dituzte babes sozialaren neurrian.

Gainera, lana generoen arabera banatuta egoteak zailtasunak sortzen dizkie lehen bezala- lan merkatura iristen diren emakumeei. Hau da, emakumearen soldata gizonen soldataren osagarritzat jotzen da (ustezko bikoteak), eta etxeko eta familia-ko lana emakumeen esku geratzen da orain ere. Izan ere, etxeko produkzioaren bilakaera kontraziklikoak erakusten zenez, sistema kapitalistak etxeko esparruan mantendu nahi ditu emakumeak, batez ere krisialdi ekonomikoetan; gogoa izan behar dugu, alde horretatik, langabezi tasa orokorrak handiak direnean lehiakortasuna gordinago bihurtzen dela, eta, hortaz, kapitalak nahiago izaten duela emakumeak soldatako lanaren esparrutik bazterzea.

Segmentazio dual bat dagoela eta emakumeak bigarren segmentuan kontzentratzen direla dioen hipotesia euskal errealitatean egia ote den begiratzean, oso lagungarria izango zaigu lan merkatura lau esparrutan sailkatzea. Sailkapen metodologiko horrek erraztu egingo digu emakumeen lan integrazioaren

dinamikaren deskribapena, baita horrek babes sozialeko mekanismoetan duen eragina aztertzea ere.

1. Esparrua: kontratu mugagabea duten langileak.
2. Esparrua: aldi baterako kontratua duten langileak.
3. Esparrua: ezkutuko ekonomia.
4. Esparrua: langabeak.

Gaia hobeto ulertzeko, lehenengo esparrua lehen segmentuarekin identifika dezakegu, eta gainerako hiru esparruak bigarren segmentuaren dinamikarekin.

Generoak lau esparru horietan zer eragin duen aztertu baino lehen, interesgarria iruditu zaigu lan merkatuaren ezauzgarri orokor batzuk erakustea. Horretarako, ondoren eskainiko dugun koadroan generoen araberako lan estruktura erakusten dugu Euskal Autonomia Erkidegorako. Estruktura horretatik bi alderdi soilik azpimarratuko ditugu: alde batetik, emakumeen jarduera tasa txikiagoa dela, aurreko atalean esan dugun bezala; bestetik, emakumeen langabezi tasa (%22,65) gizonena (%10,62) baino handiagoa dela, eta langabezia emakumeen artean kontzentratzen dela (osoko langabeziaren %59,37). Euren lehen lanpostua bilatzen duten langabeen ehunekoak, berriaz, antzekoa da gizonen (%21) eta emakumeen (%27) kasuan.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA, JARDUERAREKIN DUEN HARREMANAGATIK. EAE. 1999

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|--|---------|---------|-----------|
| EAEko biztanleria | 1.788,1 | 867,7 | 920,5 |
| Aktiiboak | 962,8 | 571,3 | 391,5 |
| Okupatuak | 813,4 | 510,5 | 302,9 |
| Langabetuak | 149,4 | 60,7 | 88,7 |
| -Aurretik lan egin duten langabetuak | 112,3 | 47,5 | 64,8 |
| -Lehenengo lan postua bilatzen duten langabetuak | 37,1 | 13,3 | 23,9 |
| Ez aktiboak | 825,3 | 296,4 | 528,9 |

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. 1999.

Azterketa sektore ekonomikoen arabera eginez gero -hurrengo koadroak erakusten duenez-, emakume okupatu gehienek hirugarren sektorean dihardutela ikus dezakegu, hain zuzen ere emakumeen %84k. Izan ere, zerbitzuen sektoreko okupazio tasak antzekoak dira bi sexuentzat. Esan daiteke, beraz, emakumeen okupazioa txikiagoa izatearen arrazoia industrian duten presentzia txikia dela.

EKONOMIAREN SEKTORE BAKOITZEAN OKUPATUTAKO BIZTANLERIA, SEXUAREN ARABERA. EAE. 1999

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|-------------|---------|---------|-----------|
| Guztira | 813,4 | 510,5 | 302,9 |
| Nekazaritza | 18,9 | 13,7 | 5,2 |
| Industria | 239,8 | 199,3 | 40,4 |
| Eraikuntza | 67,8 | 64,8 | 3,0 |
| Zerbitzuak | 486,9 | 232,7 | 254,2 |

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko arabera. 1999.

Horrek eragin negatiboa du emakumeen soldatetan. Izan ere, batez besteko soldatak txikiagoak dira zerbitzuetan industrian baino; gainera, tertziarizazio prozesua eta emakumeen lan integrazioa soldatarik txarrenak dituzten adarretan gertatzen da gehienbat, adibidez: "enpresentzako zerbitzuetan", "ostalaritzan" eta "merkataritzan". Horrez gain, eta paradoxikoa badirudi ere, soldata mailarik onenak dituzten zerbitzuak, hala nola "administrazio publikoa" eta "hezkuntza eta ikerkuntza", jaitsi egin dira soldaten ranking-ean; horren arrazoi bakarra ez da adar horietan aldi baterako kontratuak izan duten gorakada.

Halaber, ezin ahaz dezakegu lanbideak eta lanpostuak feminizatzen diren heinean euren lan baldintzak okertu egiten direla. Ez da inolako gehiegikeria esatea emakumea dela lan ezegonkortasunaren

adierazlerik garbiena, zeren emakume langileen soldata gizonena baino %25-30 txikiagoa baita oraindik ere.

Lanbide egoeraren arabera banaketari dagokionez (ikus hurrengo koadroa), azpimarratzekoa da emakumeek partehartze handiagoa dutela Administrazio Publikoan, bai kopuru erlatiboetan eta bai absolutuetan. Alde horretatik, esan beharra dago sektore publikoak eginkizun orekatzailea duela, emakumeen batez besteko soldatak eta okupazio tasa hobetzea ahalbidetzen baitu: lan eskala bakoitzean soldata mailan dagoen desberdintasuna askoz ere txikiagoa da sektore publikoan pribatuan baino, eta aukera berdintasuna hobe da sektore publikoan.

Adierazle nagusien gainbegiratu honekin bukatzeko, besteen kontura lan egi-

OKUPATUTAKO BIZTANLERIA, LANBIDE EGOERAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE. 1999

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|-------------------------------------|---------|---------|-----------|
| Guztira | 813,4 | 510,5 | 302,9 |
| Enpresariak | 22,1 | 17,5 | 4,6 |
| Autonomoak | 116,0 | 78,9 | 37,1 |
| Famili laguntzak | 7,7 | 2,0 | 5,7 |
| Kooperatibistak | 17,9 | 13,2 | 4,8 |
| Sektore publikoko soldata langileak | 106,9 | 50,6 | 56,3 |
| Sektore pribatuko soldata langileak | 542,8 | 348,3 | 194,5 |

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. 1999.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

ten duen biztanleria okupatua kontratu motaren arabera nola banatzen den erakutsiko dugu. Bi gauza aipatu behar dira: bata, soldatako langileen aldi baterako lanen tasa antzekoa dela emakumeen (%30,58) eta gizonen (%28,77) artean; bestea, ezkutuko ekonomiaren eragina askoz ere handiagoa dela emakumeen artean, hala kopuru absolutuetan nola erlatiboetan (%13,59 emakumeak eta %1,85 gizonak). Dena dela, pentsa daiteke aldi baterako kontratazioaren eta ezkutuko ekonomiaren logikak ildo beretik doazela (lan kostuak murriztea, esplotazio handiagoa edo lan baldintza arbitrarioagoak, harreman ahula enpresarekin), eta, hortaz, ezkutuko ekonomia nabarmenki murrizteak aldi baterako kontrataziora bidal litzakeela bertako aktiboak.

Lau esparruen proposamen metodologikora itzulita, eta aurreko estatistikak abiapuntutzat harturik, esparru bakoitzak genero bakoitzarentzat duen pisu

espezifikoa kalkulatu dugu. Hala, hurrengo taulak frekuentzia absolutuak eta erlatiboak erakusten ditu. Horretarako, lehenengo esparruan hauexek sartu ditugu: kontratu mugagabea duten soldatako langileak, enpresariak eta kooperatibistak. Bigarren esparruan, aldi baterako kontratua duten soldatako langileak. Hirugarren esparruan, kontraturik ez duten soldatako langileak eta famili laguntzen epigrafean sailkatutakoak. Azkenik, laugarren esparruan langabeak sartu ditugu. Langile autonomoak ez ditugu inon sartu, zeren eta, geroago ikusiko dugunez, ez baitira talde homogeneoa. Izan ere, bai 1. esparruan eta bai 2. esparruan sailka daitezke.

Aurreko koadroa ikusirik zera ondoriozta dezakegu: gizon gehienak lehen segmentuan daudela (gizonen %62,44) eta emakume gehienek bigarren segmentuko dinamikan parte hartzen dutela (%57,88), dela okupatu moduan (%32,87) dela langabe moduan (%25,02).

SOLDATAKO BIZTANLERIA OKUPATUA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE. 1999

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|-------------------------------|---------|---------|-----------|
| Guztira | 649,7 | 398,9 | 250,8 |
| Mugagabea-finkoa | 416,7 | 276,7 | 139,9 |
| Aldi batekoa | 191,5 | 114,8 | 76,7 |
| Kontratu gabe eta bestelakoak | 41,5 | 7,4 | 34,1 |

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. 1999.

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---------------------|---------|---------|-----------|
| 1. Esparrua | 456,7 | 307,4 | 149,3 |
| 2. Esparrua | 191,5 | 114,8 | 76,7 |
| 3. Esparrua | 49,2 | 9,4 | 39,8 |
| 4. Esparrua | 149,4 | 60,7 | 88,7 |
| Guztira | 846,8 | 492,3 | 354,5 |
| Baztertuak | 116 | 78,9 | 37,1 |
| Biztanleria aktiboa | 962,8 | 571,2 | 391,6 |
| | | | |
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| 1. Esparrua | 53,93 | 62,44 | 42,12 |
| 2. Esparrua | 22,61 | 23,32 | 21,64 |
| 3. Esparrua | 5,81 | 1,91 | 11,23 |
| 4. Esparrua | 17,64 | 12,33 | 25,02 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |

Iturria: Eustat. Geuk prestatua.

Generoaren arabera itxuratzen den banaketa asimetriko hori are larriagoa izango litzateke ondoren aipatuko duguna kontuan hartuz gero. Hasteko, ain-tzakotzat hartu behar dugu Administrazio Publikoak duen funtzio orekatzailea (desorekak bigunduz), zeren bertan askoz ere handiagoa baita emakumeen partehartze erlatibo eta absolutua, eta horrek nabarmenki igotzen du emakumeek 1. esparruan duten presentzia. Adibidez, kalkulua egiterakoan sektore publikoko langileak kanpoan utziko bagenitu, emakumeek 1. esparruan duten partehartzea 11 ehuneko-puntutan jai-tsiko litzateke, %31,16raino; gizonezkoena, berriz, 4 puntu baino ez litzateke jaitsiko.

Eta, bigarrenik, lau esparru horietan dauden banaketa bestelakoa izango litzateke langabe desanimatuak (lana aurkitzeko itxaropena galdu duten langabeak, alegia) kontuan hartuko bagenitu. Langabe desanimatuen kopuruaren inguruan dauden kalkulu batzuk baztertu egin ditugu, zeren eta, kalkulu horien arabera, emakumeen jarduera tasa Europako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa izango bailitzateke¹⁰. Hala eta guztiz ere, sexuen arabera jarduera tasak Europako batez besteko tasekin parekatuko bagenu, gizon langabe desanimatuen kolektiboa 500 langilez osatuta egongo litzateke, hau da, aktiboa ez den biztanleriaren %0,17az.

8. Apuntes sobre la protección social desde la perspectiva de género

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|--------------------------|---------|---------|-----------|
| 1. Esparrua | 52,16 | 62,38 | 39,01 |
| 2. Esparrua | 21,87 | 23,29 | 20,04 |
| 3. Esparrua | 5,62 | 1,91 | 10,40 |
| 4. Esparrua+desanimatuak | 20,35 | 12,42 | 30,55 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |

Emakume langabe desanimatuen kolektiboa, berriz, 28.200 langilez egongo litzateke osatuta, hau da, %5,34az. Langabe desanimatuak laugarren esparruan sartzen baditugu, banaketa ondorengo taulak erakusten duena izango litzateke.

Jarraian ikusiko ditugu, zehaztasun handiagoz, esparru bakoitzaren ezaugarriak; horrekin batera, esparru batekin baino gehiagorekin zerikusia duten beste alderdi batzuk komentatuko ditugu; adibidez: langile autonomoak eta lanaldi partzialeko kontratazioa.

1. esparruari lehen segmentua edo "muina" ere deitzen zaio. Bertan dauden langileak 307.400 gizon eta 149.300 emakume dira. Pertsona horiek kalte-

ordainez babestuta daude kaleratuak izanez gero (beste kontratu batzuekin alderatuz gero), eta soldata hobeak kontratzen dituzte. Langile klasearen "muin" pribilegiatua dira.

2. esparruan aldi baterako kontratua duten langileak sartzen dira. Kontratu horrek soldata ezegonkorrak dakartza berekin, eta soldata horiek batez besteko soldatak baino txikiagoak izaten dira. Aldi baterako kontratuen kaleratze kostuak kontratu mugagabeenak baino txikiagoak dira, eta Segurantza Sozialerako kotizazioak ere txikiagoak dira. Oso gutxi izaten dira aldi baterako izatetik mugagabe izatera pasatzen diren kontratuak. Kontratazio hori ohiko lan baldintza bihurtu da emakume gazte askorentzat (gazteen %80k kontratu mota hori dute).

¹⁰ Adibidez, esango bagenu aktiboa ez den biztanleriaren %28,7a (kalkulu hori egin du Felisa Chinchetruk, 1988ko datuekin, Emakunde argitaratutako "Economía del trabajo de las mujeres. El caso de Euskadi" lanean. Gizonen artean, berriz, biztanleria ez aktiboaren %8a da kalkulua) desanimatuta dauden emakume langabeen kolektiboá dela, jarduera tasa %59ra igoko litzateke, hau da, Europako Batasunako tasarik handienara. Hori gertatzen da ezin aplikatu dezakegulako gaur egungo egoerara beheraldi ekonomikoetan edo langabezia handiko garaietan kalkulaturakoa.

3. esparruan ezkutuko ekonomiaren langileak daude. Horri dagokionez, merkatu formaleko produkzioan sor litezkeen ondasun eta zerbitzuez soilik hitz egingo dugu. Hau da, ondasun eta zerbitzu horiek merkatu formalean egin litezke, baina zergak, kostu sozialak eta abar saihesteko "legez kanpo" egiten dira, modu formalean existitu gabe. Ezkutuko ekonomiaren bidez kostuak murrizten dira, eta etekina kapitalaren alde doa modu nabarmenagoan, ez duelako ez zergarik ez kotizazio sozialik ordaintzen. Jarduera horietako soldatak askoz ere txikiagoak dira, lan kontraturik ez dagoelako. Emakumeek presentzia handia dute merkatuaren sektore informalean: gehienak etxekoandreak, gazteak, jubilatutak eta langabezia-aldi luzeko langabeak dira. Egin diren kalkuluen arabera, ezkutuko ekonomiaren %80a emakumeek egiten dute (etxekoa ez den ezkutuko ekonomian diharduten emakumez hitz egiten ari gara).

Etxekoandre batzuek etxeko lanekin batera egin ditzaketelako onartzen dituzte gisa horretako lanak, eta, horrez gain, era horretan familiaren diru-sarrerak osa ditzaketelako. Kolektibo horretako beste emakume batzuek, berriz, lan egonkor normalak -lanaldi osokoak edo partzialekoak- ezin aurki ditzaketelako onartzen dituzte ezkutuko ekonomiako lanak. Gazteek eta langabezia-

aldi luzeko langabeek edozein motatako lana onartzen dituzte, ezin dutelako merkatu formalean lanik aurkitu. Era horretan, ezkutuko ekonomia itzulbiderik gabeko bidaia bihurtzen da sarritan emakume horientzat.

Hirugarren esparruaren barnean ezinbestekoa da etxeko langileen kasua azpimarratzea. Lan mota hori ekonomia formalaren eta ezkutuko ekonomiaren artean dago. Sektore horretan hauxe gertatzen da: gizarteak emakumeei esleitzen dien lan bat eremu pribatutik ateratzen dela, eta horren truke soldata bat jasotzen duten beste emakume batzuei ematen zaiela. Lan mota hori oso lan baldintza penagarritan egin ohi da: soldatak oso txikiak izaten dira eta lanaldia izugarri luzea. Emakume horien artean, ia %70 ez daude Gizarte Segurantzaz afiliatuta. Emakume horiek enplegatzen dituzten pertsonak ez dute etxeko langileek egiten duten etxeko lanaren balioa aitortzen. Izan ere, lan hori ez da ez baloratzen ez modu egokian ordaintzen. Emakume askok galdu egin dute beste motatako lan bat aurkitzeko itxaropena, dela prestakuntzarik ez dutelako, dela adinagatik edo dela beste lan esparruetan etorkizunik ikusten ez dutelako; horren eraginez, lanaldi luze eta onartezinak bete behar izaten dituzte (euren etxean lan egiteaz gain beste lan batzuetan ere lan egin behar izaten dute). Izan

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

ere, lan mota horietan enplegatuta dauden emakume gehienak nahiko nagusiak dira (%35ek 40 urte baino gehiago dituzte).

4. esparruan ikus dezakegu emakumeek presentzia nabarmena dutela langabeen artean. Gainera, langabeziaren iraupena handiagoa da emakumeen artean, zeren langabezia-aldi luzeko egoeran (12 hilabete edo gehiago langabezian) emakume asko baitaude. Halaber, emakume gehiago daude -gizonak baino- lehen lanpostua bilatzen duten pertsonen artean. Hurrengo kapituluan langabezi prestazioez hitz egingo dugu, gai horretan generoak sortzen dituen desberdintasunak aipatuz.

3.1. LANALDI PARTZIALEKO LANA

Lanaldi partzialeko lana duten pertsonen artean askoz ere emakume gehiago daude gizonak baino. Hala, lana duten 10 emakumetarik 3k mota horretako kontratua dute. Lanaren, lanaldi partzialeko lanaren eta emakumeen lanaren artean dagoen lotura estuak bizirik dira gaur egun, hirurogeiko hamarkadan lan mota horri buruz egindako lehen azterlanen teoriak kontrakoa aurreikusten bazuten ere. Orduan esaten zenez, lanaldi partzialeko langileen artean hainbeste emakume egotea une bateko kontua zen, emakumea lan merkatuan sartzen ari zirela adie-

razten zuen sintoma bat, hain zuzen ere. Alde horretatik, emakumea lan merkatuan erabat integratu ahala egoera hori normalizatu egingo zela esaten zen azterlan horietan.

Ekonomilari neoliberalen esanetan, lanaldi partzialeko lanak hedatuago daude emakumeen artean beraientzat abantaila handiak dakartzalako: euren etxeko lanak eta lan ordaindua bateratzeko aukera eskaintzen diete. Nolabait, azalpen horrek lanaren sexuaren araberrako banaketa erroto nahi zuen, familia zaintzeko arduren atribuzioa instituzionalizatuz, eta, era horretan, lanaldi partzialeko enplegua "emakumeen" lan mota nagusi bihurtuz. Berari esker, batez ere ezkonduetako emakumez osatutako langile erreserba bat aktibatu ahal izango zen, behar izanez gero. Teoria hori ez dago ahaztuta; aitzitik, garai honetan ere sarritan aipatzen dira lanaldi partzialeko lanak omen dituen abantaila horiek, famili eta lan bizitza bateratzeko berriki onartu den legean jasotakoak erakusten duenez. Azkenaldi honetan egin diren azterketa batzuek teoria hori kritikatu egin dute; beraien arabera, lanari aitortzen zaion balio soziala ez da berdina lanaldi osoko lanerako eta lanaldi partzialekorako. Lanaldi partzian egindako lanek ez dute lanaldi osoko lanek dituen balio sozial berbera, eta txartoago ordaintzen dira. Lanaren barnean segmen-

tazio bat ikus daiteke: lanaldi partzialeko lana 'sozialki onartuta dago emakumeentzat; gizonentzat, ordea, langabezia partzialarekin lotzen da normalean lanaldi partzialeko lana. Lan mota horrek (ezegonkorra) soldata eta prestazio txikiagoak ematen ditu, hau da, esplotazioa areagotzeko forma berriak ekartzen ditu berekin. Bere helburua diskriminazioa da: etxeko lanen zama emakumeen esku uzten jarraitu nahi du.

Kontratu mota horretan, gainera, gogortu egin dira gizarte segurantzaren prestazioak lortzeko bete behar diren baldintzak. 1994ko lan erreformak hautsi egin zuen lan egindako egun bakoitza egun kotizatutzat hartzen zuen printzipioa. Modu horretan, prestazio bat lortzeko kotizatu behar diren egunen zenbaketa egiteko, benetan lan egindako orduak hartu eta jardueraren ohiko lanegunaren orduen artean zatitzen dira.



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

Modu praktikoan zera esan nahi du horrek: langile baten lanaldia ohiko lanaldiaren %50a baldin bada, langile horri bi lanegun eskatuko zaizkiola egun bateko kotizazioa betetzeko. Beraz, erretirorako gutxienez kotizatu behar den aldia 15 urtekoa denez, langile horrek 30 urtez egin beharko du lan erretiroa kobratu ahal izateko. Orobat, erreforma horrek murriztu egin zuen astean 12 lanordu edo hilean 48 lanordu baino gutxiagoko kontratuen babes soziala; hurrezkeroztik bakarrik sartzen dira lan-istripuko edo lanbide-gaixotasuneko kontingentziak, kontingentzia arrunten asistentzia sanitarioa, amatasun-garaiei dagokien prestazio ekonomikoa eta Soldadak Bermatzeko Fonda.

1997an egindako beste erreforma baten bidez berriro sartu zen indarrean astean 12 lanordu edo hilean 48 lanordu baino gutxiagoko kontratuen babes soziala, baina ez zuen aldatu kotizazioak benetan lan egindako orduen arabera kalkulatzeko agindua.


Azaroaren 27ko 15/1998 ELDK berriro arautu zuen lanaldi partzialeko kontratua. Bertan esaten denez, kontratu horrek izaera hori izango du denbora osoko lanaldiaren %77a baino gutxiagoko iraupena baldin badu, eguneko, asteko, hileko edo urteko lanorduetan. Indarrean dagoen azken araudi horrek eutsi

egiten dio kotizazioak benetan lan egindako orduen arabera zenbatzeari; kalkulua egiteko modu hori bakarrik aldatzen da erretiro eta ezintasun prestazio-etarako, bertan 1,5eko koefiziente biderkatzaile bat onartzen baita aringarri gisa. Lehengo adibidea oraingo koefiziente zuzentzailearekin errepikatuz, ohiko lanaldiaren %50eko kontratua duen langileak 20 urtez lan egin beharko luke, gutxienez, erretiro-pentsioa kobratu ahal izateko.

3.2. EMAKUME LANGILE AUTONOMOA

Emakume langile autonomoen artean bi errealitate guttiz desberdin bereiz ditzakegu. Alde batetik, emakumeen jarduera tradizionalak ditugu; bertan, emakumeek euren produkzio tresnak dituzte eta euren lana antolatzen dute (zerbitzuen sektorea, ileapaindegia, jostunak, estetizistak...). Beste batetik, azken bi hamarkada hauetan enpresek gauzatu duten kanporatze-estrategiaren emaitza izango genuke.

Kanporatze-estrategia horrek egiten duena lan harremanen ordezkari merkataritzaren harremanak jartzea da: kontrolaren kostuak, hutsarteak, laneko gatazkak eta lan kostuak murriztu nahi dira, gai horiek enpresatik kanpoko hitzarmen kolektibo bidez arautuz. Kanporatze hori egiteko hiru bide erabiltzen



dira: jarduerak beste enpresa batzuei azpikontratatzeari; kontratazioa Aldi Baterako Laneko Enpresen bitartez egitea; eta soldatako langileak langile autonomo bihurtzea.

Azken puntu horri dagokionez, emakume langile horiek pairatzen dituzten lan baldintzak ezkutuko ekonomiako baldintzen antzekoak dira: soldatak txikiak dira eta lanaldiak luzeak, ez dago baldintza egokirik segurtasun eta higiegi arloan, ez dago defentsa sindikalik..., hau da, langile horiek lan egoera ezezagorria dute.

3.3. BELAUNALDI DESBERDINETAKO EMAKUMEEN LAN INTEGRAZIOA

Kapitulua hau bukatzeko, emakumeen lan integrazioaren alderdi dinamikoak aztertu nahi genuke, generoen arabera, lan estrukturak etorkizunean zer nolako bilakaera izan dezakeen ikusteko.

Egia da, orokorrean, emakumeek lan merkatuan duten etorkizuna gizonena baino txarragoa dela; hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago emakumeen artean aldaketa nabarmenak gertatu direla denboran zehar, eta, alde horretara-

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

tik, aldaera desberdinak sortu direla adin, hezkuntza maila eta klase sozialaren arabera. Jarraian erakutsiko dugu zein diren adin talde bakoitzaren integrazio eredu orokorrak.

45 eta 65 urte bitarteko emakumeekin hasteko, berauek euren belaunaldi eta klase sozial berbereko gizonen baino hezkuntza maila txikiagoa eskuratu zuten. 45 urtetik gorako emakumeak nagusi izatera iritsi zirenean, etxekoandre-



en estatusa zen ezkonduetako emakumeentzat sozialki gehien baloratzen zen estatusa. Emakume horiek etxeko lanetan espezializatu ziren, eta horren eraginez beraien senarren menpeko bihurtu ziren, ekonomiaren ikuspuntutik, zeren "famili burua" izaten baitzen etxeko soldata ekartzen zuena. Hezkuntza eskuratzeko modurik izan ez zutenenez, beraien kualifikazio mailak txikiak dira gaur egun, eta, horrenbestez, egoera zailean daude lan merkatuaren barnean: gehienek gaizki ordaindutako lanak egiten dituzte, ezkutuko ekonomikako lanak edota lanaldi partzialekoak.

35 eta 45 urte bitarteko emakumeak egoera ekonomiko on batean iritsi ziren lan egiteko adinera, baina gizarteak emakumeei ezartzen dien rola zama handia izan zen askorentzat, halako moldez non lan merkatuan integratzeko motibazioa kendu baitziren. Emakume horietako asko geroago sartuko ziren soldatako lan merkatuan, etxeko ekonomiari beste diru-sarrerera bat eskaintzeko.

25 eta 35 urte bitarteko emakumeek hezkuntza jasotzeko aukera handiagok izan dituzte aurreko belaunaldieta-koek baino; izan ere, haietariko askok goi mailako ikasketak egin dituzte, eta, hortaz, aukera hobeak izan dituzte lan esparruan. Hori horrela izan arren, krisialdi ekonomiko gordinean heldu dira

lan merkatuara, eta horrek langabezia eta ezegonkortasuna ekarri dizkie.

16 eta 25 urte bitarteko emakumeentzat hobeak izan da hezkuntzaren kalitatea. Emakume horiek kualifikazio maila hobeak eta egokiagoak dituzte; hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da emakumeak gehiegi kontzentratzen direla adar eta lanbide jakin batzuetan. Emakume horiek ere langabezia eta ezegonkortasuna pairatzen dituzte euren izaeraren bi alderdiengatik, hau da, gazte eta emakume izateagatik.

Eztabaidatu beharreko azken gai interesgarria da ea noraino irauten duten errotazioan oinarritutako lan integratuzko ereduek. Ekonomilari batzuen aburuz, lan errotazioaren fenomenoak garai iragankor bat da, batez ere gaztarokoa; gero, kasu gehienetan, lan egonkor, mugagabe eta -seguru aski- ondo ordainduak lortzera eramango du.


Ondorengo koadroari begiratu gero, goian aipatutako iritzia okerra dela ikusiko dugu: izan ere, egia da aldi baterako kontratazioa gehiegizkoa dela gazteen artean, baina gauza bera gertatzen da 25-44 adin-tartean ere, emakume horien aldi baterako kontratazioa Europako batez bestekoaren bikoitza delako. Hau da, gazteengan kontzentratzen den fase iragankor batez hitz egin beharre-

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

KONTRATU MOTEN EHUNekoak, ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA.
EAE. 1999

| | Guztira | Gizonak | Emakumeak | | |
|---------------------|---------|---------|-----------|------------------------------------|-----------|
| Mugagabea-finkoa | | | | | |
| 16-24 urte | 21,61 | 23,94 | 18,24 | | |
| 25-44 urte | 61,23 | 65,70 | 55,22 | | |
| 45 urte edo gehiago | 87,21 | 90,73 | 78,65 | | |
| | | | | Aldi baterako eta kontraturik gabe | |
| Aldi baterako | | | | Gizonak | Emakumeak |
| 16-24 urte | 68,01 | 71,13 | 63,51 | 76,06 | 82,09 |
| 25-44 urte | 31,96 | 32,14 | 31,72 | 34,30 | 44,78 |
| 45 urte edo gehiago | 8,91 | 8,96 | 8,99 | 9,27 | 21,54 |
| | | | | | |
| Kontraturik gabe | | | | | |
| 16-24 urte | 10,39 | 4,93 | 18,58 | | |
| 25-44 urte | 6,79 | 2,16 | 13,06 | | |
| 45 urte edo gehiago | 3,88 | 0,31 | 12,55 | | |

Iturria: Eustat. Geuk prestatua.



an, badirudi egokiagoa dela gainerako adin-tarteetara hedatzen den olio-putzu batez hitz egitea. Badirudi, beraz, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien fenomeno iraunkor bat dugula aurrez aurre. 80ko hamarkadaren erditik aurrera kontratazio mugagabeen gertatu denak berretsi egiten du argudio hori, zeren kontratazio mota hori nekez igo baita %5etik, eta, gainera, aldi baterako kontratuen nagusitasuna moteldu nahirik kontratazioaren araubidean egin diren ahaleginek -adibidez: 1998ko lan erreformaren azken neurriek- ez dute

lortu kontratazio mugagabea %7tik gorera eramatea.

Datu horiek ikusirik, badirudi lan harremanak marko berri baterantz doazela; bertan, gutxienez biztanleriaren heren bat errotazioaren dinamikan legoke, bigarren segmentuaren funtzionamenduaren logikaren menpe. Hau da, etorkizunean handiagoak izango dira polarizazioa, segmentazioa eta desberdintasuna, eta horrek guztiak eragin handiagoa izango du emakumeen artean.

Babes sozialerako politikak

4. Babes sozialerako politikak

Politika soziala terminoarekin botere publikoen hainbat jarduera-eremu definitzen dira. Eurostatek aukeratu duen sailkapenak honako eginkizun sozial hauek biltzen ditu termino horretan: gaixotasuna, baliaezintasuna-ezintasuna, lan istripuak eta lanbide gaixotasuna; zahartzarora; bizirik iraun duten senidentzako laguntzak; amatasuna; familia; langabezia; lanbide orientazioa eta mugikortasuna; etxebizitza; eta beste zenbait. Lan honetan babes sozialeko tresna nagusiak soilik aipatuko ditugu, hau da, biztanleriaren errentak hobeto banatzera zuzentzen diren diru-transferentziak egiten dituzten babes-tresnak.

Gizarte modernoak estatuaz baliatzen dira gehienbat babes soziala gauzatzeko. Ongizate estatua ikuspegi desberdinetatik kontzeptualizatu da, eta, hortaz, ez gara iritsi estruktura teoriko komun bat definitzera. Guretzat hauxe da ongizatea estatua: estatuak gizarte zibilean ikuspegi bikoitz batetik egiten duen eskuhartzea: alde batetik, estatuak lan merkatuaren funtzionamendua arautzen du, eta horren bidez parte hartzen du gizabanakoen posizio sozialaren determinazioan; beste alde batetik, eskuhartze sozialeko programak garatzen ditu, lan merkatuak asetzen ez dituen beharrak betetzeko. Era horretan, ongizate estatuen politika sozialak alderdi bikoitza du, zeren bai lan merkatuaren antolaketa eta bai segurantzeta eta asistentzia sozialeko sistemak hartzen baititu barne. Horren eraginez, ezin esan daiteke ongizate estatua ez da goela lan merkatuaren funtzionamendu

motarekin lotuta; aitzitik, funtsezko eginkizuna du gizarte desberdintasunen eraketan (generoaren eraginez sortzen direnak barne).

Orobat, gogoan izan behar dugu etengabeko eztabaida batean gaudela murgildurik, zeinean ikuspegi liberalek babes pribatua sustatu nahi duten, babes hori aurrezkien, famili elkartasunaren, aseguru eta mutualitate pribatuen eta elkartasun-edo karitate-erakunde zibilen bitartez bidera dadin. Horren aurrean, aldiz, babesa derrigorrez eta Gizarte Segurantza publikoaren bidez bermatzearen aldeko iritzia daude. Izan ere, autore batzuek diotenez, ongizate estatua aldatzen eta estatu asistentzial edo "Estatu Ongile Marjinal" (muturreko kasuak soilik babestera mugatzen baita) bat bihurtzen ari da.

Babes sozialeko sistema publikoa bi arlotan egituratzen da; bi arlo horiek, baina, elkarren alternatiba moduan antolatzen dira, hau da, ezin dira biak aldi berean metatu. Arlo nagusia kotizaziopeko maila da, ez asistentziala. Izan ere, maila asistentzialera bakarrik jotzen da kotizaziopeko maila ezin aplikatu daitekeenean edo nahikoa ez denean.

Kotizaziopeko prestazioak (kontributiboak) pertsona aktiboek kobratzen dituzte ordaindutako kotizazioengatik, hau da, kontingentzia arruntei, lan istripuei eta

lanbide gaixotasunei, langabeziari, Soldadak Bermatzeko Fondoari eta Lanbide Heziketari dagozkien kotizazioak ordaindu izanagatik. Ekarpen horien bitartez, zenbait prestazio eskuratzeko eskubide subjektibo eta besterenezinak lortzen dituzte langileek, baldin eta betekizun batzuk betetzen badituzte, hala nola kotizazio-aldia, egoera pertsonala, adina,... Prestazioaren zenbatekoa kotizazio oinarrien ehuneko moduan ezartzen da, oro har. Modu eskematikoan esanda, soldata-kotizazioa-prestazioa lotura eratzen da.

Kotizazio gabeko prestazioak (edo asistentzialak) pertsona hauek jasotzen dituzte: kotizaziorik ez duten pertsonak edo



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

kotizaziopeko prestazio bat sortzeko kotizazio nahikorik ez duten pertsonak. Prestazio horiek kobratzeko, dena dela, beste baldintza bat bete behar dute, hots: euren errentak ezin dira legez ezarritakoak baino handiagoak izan. Hala eta guztiz ere, horrek ez du eskubide indibidual iraunkorrik sortzen; aitzitik, elkartzunezko laguntza bat da, sektore behar-tsuei "eskuzabaltasunez" eskaintzen zaiona. Laguntza horien esanahia hobeto ulertzeko zera hartu behar da kontuan: 90eko hamarkadan sortu ziren prestazio horien neurria (kobratzen den zenbatekoa) txikia dela eta Estatuaren Aurrekontu Orokorretik Gizarte Segurantzaren Erakundeari egiten zaizkion transferentzien bitartez ordaintzen dela. Gogoan izan behar dugu, haatik, Autonomia Erki-degoetako Gobernuak, Diputazioek eta Udalek laguntza osagarriak eskaini ditza-ketela. Nolanahi ere, laguntza horiek generoen arabera zer-nolako eragina duten neurtzerakoan, interesgarriena da ikus-tea nola erabakitzen den diru-sarrerak nahikoak ez ote diren: kontuan hartzen dena famili unitateak eskuratzen dituen errentak dira, ez prestazioa jasotzen duen pertsonak berez eskuratzen dituenak.

Hego Euskal Herrian ez daude transferi-tuta Gizarte Segurantzako eta Enpleguko eskumenak, eta, beraz, haien kudeaketa bi erakunderen esku daude. Alde batetik, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

(INSS) dugu; erakunde horrek Gizarte Se-gurantzaren prestazio ekonomikoen ar-dura du: erretiroa, alarguntza, baliaezinta-suna, aldi baterako ezintasuna, zurtasuna, ... Eta, beste alde batetik, Enpleguko Institutu Nazionala (INEM); beraren ardu-ra langabezi prestazio eta dirulaguntzak ematea da. Oinarrizko egitura hori osa-tzeko, Itsas Langileen Institutu Nazionala dugu ("Instituto Social de la Marina"), itsa-soko lanaren erregimen berezia kudea-tzen duen erakundea, alegia. Kotizazio ga-beko pentsioen kudeaketa Foru Aldun-dietako Gizarte Ongizate sailen eta Nafa-rroako Gobernuaren esku geratzen dira, bai erretiro-pentsioen kasuan eta bai ba-liaezintasun pentsioen kasuan ere.

1997an prestazio sozialetan gastatutakoa EAEko BPGaren %21,09aren adinakoa da. Ehuneko horrek behera egin du, 1995ean %21,70 izan baitzen ehuneko hori. Funtzioei dagokienez, hurrengo ko-adroak bildu ditu EAEn eskaintzen diren prestazioak. Ikus daitekeenez, zahartza-rora, gaixotasunera, asistentzia sanitario-ra eta langabeziara zuzendutako presta-zioek babes sozialeko gastuaren %82,3a hartzen dute. Azpimarratzekoa da gizar-te bazterketa eragoztera %1,1a soilik bi-deratzen dela.

EAEko biztanle bakoitzeko 514.435 pe-zeta gastatu ziren prestazio sozialetan 1997an, hau da estatuan batez beste gas-

PRESTAZIO SOZIALETAN GASTATUTAKOA, FUNTZIOEN ARABERA. EAE. 1997

| | EAE | |
|---|-----------|------|
| Zenbatekoa (milioi pta) | | % |
| Guztira | 1.081.504 | 100 |
| Gaixotasuna - asistentzia sanitarioa | 291.805 | 27 |
| Baliaezintasuna | 92.639 | 8,6 |
| Zahartzaroa | 466.519 | 43,1 |
| Bizirik iraun duten senideentzako laguntzak | 49.205 | 4,5 |
| Familia | 15.140 | 1,4 |
| Langabezia | 133.401 | 12,3 |
| Etxebizitza | 1.217 | 0,1 |
| Gizarte bazterketa | 11.834 | 1,1 |
| Berrasignatutako kotizazio sozialak | 19.744 | 1,8 |

Iturria: Eustat. Babes sozialaren kontua

tatutakoa baino %21 gehiago. Nolanahi ere, gastua BPGko ehunekoan bidez alderatzen baldin badugu, Espainiar Estatuko batez bestekoaren azpitik gaude: Estatuko BPGaren %21,47a 1997an.

Alderaketa hori Europako Batasunako herrialdeekin egiten badugu -ikus hurrengo koadroa-, BPGtik babes sozialera bideratzen dugun ehunekoa Europako batez bestekoaren azpitik dago 24 puntutan; izan ere, bakarrik Irlandakoa eta Islandiakoa dira geurea baino txikiagoak. Kontuan hartzen dugun aldagaia biztanle bakoitzeko gastua izanez gero, berriz, 41 puntutan gaude EBko batez bestekoaren azpitik. Hau da, geure azpian Portugal, Grezia eta Espainiar Estatua egongo lira-

teke soilik; Irlanda hurbil legoke eta beste guztiak oso urrun gainetik.

Bertoko babes sozialaren maila zer-nola den aipatu ondoren, prestazio mota bakoitza deskribatuko dugu modu laburrean. Gure xedea hau da: emakumeen eta gizonen artean -politika sozialen inguruan-, dauden desberdintasunetarako funtsezkoak diren alderdiak azpimarratzea. Horretarako, emakumeen artean gehien agertzen diren prestazioak soilik aztertuko ditugu, hots:

- Erretiro-pentsioak
- Alarguntza-pentsioa, umezurtz-pentsioa eta familartekoen aldeko pentsioak.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

GASTUAREN ADIERAZLEAK. EUROPA 1997.

| Babes sozialean gastatutakoa | BPGaren ehunekoa | |
|------------------------------|----------------------------------|----------------|
| | Biztanle bakoitzeko Eur12=100 | % Eur15=100 |
| Belgika | 111 | 28,5 |
| Danimarka | 159 | 31,4 |
| Alemania | 124 | 29,9 |
| Grezia | 44 | 23,6 |
| Espainiar Estatua | 49 | 21,4 |
| Frantziar Estatua | 121 | 30,8 |
| Irlanda | 60 | 17,5 |
| Italia | 84 | 25,9 |
| Luxemburgo | 158 | 24,8 |
| Holanda | 114 | 30,3 |
| Austria | 120 | 28,8 |
| Portugal | 38 | 22,5 |
| Finlandia | 114 | 29,9 |
| Suedia | 147 | 33,7 |
| Eresuma Batua | 96 | 26,8 |
| EUR-15 | 100 | 28,7 |
| EUR-11 | 100 | 28,6 |
| Islandia | 82 | 18,3 |
| Noruega | 146 | 25,7 |
| CAE 95 | 54 | 22,3 |
| CAE 97 | 59 | 21,7 |

Iturria: Eustat. Babes sozialaren kontua

- Langabezi prestazioak.
- Amatasun prestazioak.
- Gutxieneko errentak.

4.1. ERRETIRO-, ALARGUNTZA- ETA UMEZURTZ-PENSIOA ETA FAMILI-TARTEKOEN ALDEKO PENSIOA

Ba dira hiru arrazoi, babes soziala aztertzerakoan pentsioek duten garrantzia erakusten dutenak. 1.- Europako Batasunako Estatuetan, Gizarte Segurantzaren gastuaren %55a pentsioetara bideratzen da; 2.- pentsioen sistema publikoak adierazten du zein den lan merkatutik kanpo dauden pertsonen izan dezaketen bizi-modua; 3. eta, aurrekoari lotuta, pentsioen sistemaren funtzionamenduari esker hiritartasun eskubidea "pertsona guztiei" noraino aplikatzen ote zaien azter daiteke, haren dimentsio sozialean.

Pentsioen eragina modu kritikoa baloratu baino lehen, pentsio bakoitzaren alderdi nagusiak deskribatuko ditugu. Hasiteko, KOTIZAZIOPEKO prestazioak ikusiko ditugu.

Erretiro-pentsioa kobratu ahal izateko ezinbestekoa da gutxienez 15 urtez koti-

zatzea, 65 urte beteta izatea eta lan jarduerara uztea. 1967ko urtarrila baino lehen kotizatu duten langileek erretiro aurreratu eska dezakete 60 urte betetzen dituztenetik. Hala eta guztiz ere, 1967. urtea baino lehen lan merkatu ofizialean oso emakume gutxi zeudenez, oso emakume gutxi erabil lezakete aurretik erretiratzeko aukera hori. Kasu horretan kobratuko litzatekeen zenbatekoa %8 murriztuko litzateke 65 urte betetzeko falta den urte bakoitzeko. Pentsioduna hilez gero desagertu egiten da eskubide hori.

Pentsioen zenbatekoari dagokionez, gutxienez 35 urtez lan egin duen langileak oinarri arautzailearen %100a kobratuko luke. Urte gutxiagoz kotizatu dutenen kasuan, berriz, ehuneko hori murriztu egiten da 35 urte betetzera falta diren urteengatik. Oinarri arautzailearen kalkulua erretiroaren aurreko 12 urteen kotizazio oinarrien arabera egiten da ¹¹.

Alarguntza-pentsioa kobratzeko honako betekizun hauek bete behar ditu hildako pertsonaren ezkontideak:

- Ezkon-lotura bat egon behar da aurretik.
- Gutxienez 500 egunez kotizatu behar izan du heriotzaren aurreko 5 urteetan;

¹¹ Kontuan hartu behar da, dena dela, 1997 abuztuko Gizarte Segurantzaren Sistema Finkatzeko eta Razionalizatzeko Legeak sei urteko garai iragankorra ezarri zuela. Beraren arabera, igarotzen den urte bakoitzeko urte batean igotzen da oinarri arautzailearen kalkulua egiterakoan kontuan hartzen den urte kopurua, azken 8 urteak (1996 arte) kontuan hartzetik azken 15 urteak (2002an) kontuan hartzera pasatzeko.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

salbuespena: heriotza lan istripuan edo lanbide gaixotasunagatik gertatzen bada ez da inolako kotizazio-aldirik eskatzen.

-Hildakoak alta egoeran edo horrekin parekatutako egoeran egon behar zuen. Hala eta guztiz ere, hildako ezkontidea egoera horretan ez zegoenean ere pentsioa kobra daiteke, baldin eta gutxienez 15 urte kotizatuta bazituen.

Pentsioaren zenbatekoa hildako ezkontidearen oinarri arautzailearen %45a da, eta bateragarria da laneko errentekin (hau da, pentsiodunak lanean jarrai dezake).

Umezurtz-pentsioa 18 urte baino gazteago diren edo lan egin ezin duten seme-alabentzat da. 99-1-1etik aurrera 21 edo 23 urte baino gazteagoek ere pentsio hori kobra dezakete, baldin eta bi gurasoak hil egin badira, eta, halaber, euren kabuz edo norbaitentzat lan ordaindua egiten ez badute, edota, egitekotan, urteko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren %75a baino txikiagoak baldin badira, urteko zenbatekoan kontatuak.

Zenbatekoa oinarri arautzailearen %20a da umezurtz bakoitzeko. Pentsio horren zenbatekoari alarguntza-pentsioaren %45a gehitzen zaio, baldin eta pentsioaren oinarri den pertsona hiltzen denean beste ezkontidea ere hilda badago; edota alarguntza-pentsioa kobratzeko eskubidea duen eta bizirik geratu den ezkon-

tidea pentsio hori kobratzen duen bitartean hiltzen bada. Umezurtz batzuk egoenez gero, gehitzen den kopuru hori onuradun guztien artean banatzen da zati berdinetan.

Familiarterkoen aldeko pentsioen xedea hauxe da: hildakoa zaintzen zuten eta ekonomikoki beraren menpe zeuden familiarterkoen edo familiarterko izaera dutenen premia-egoera arintzea. Haren zenbatekoa hildakoaren oinarri arautzailearen %20a da.

Alarguntza- eta umezurtz-prestazioen eta familiarterkoen aldeko prestazioen oinarrian ideia bat dago, hots, langilearen heriotzak diru-iturri bat kentzen diola familiarari. Ildo horretatik antolatzen den babesaren funtsean alderdi ideologiko garrantzitsuak daude, eta beraiek dira babesekintzaren zentzua ezarriko dutenak; adibidez: familiarizatzer hartzen den, emakumeen lana noraino baloratzen den, izatezko bikoteak kontuan hartzen ote diren,...

Azaldu dugun bezala, alarguntza-pentsioa hildako gizonaren alargunari ematen zaio, kotizazioaren eremuan eskatzen diren betekizunak betez gero. Gizon alargunen kasua oso bestelakoa zen Konstituzio Auzitegiak bere 1983ko epaia eman arte; izan ere, emaztea hiltzen baldin bazen gizonek lan-ezintasunean egon behar zuten eta ekonomikoki emaztearen

menpe. Gaur egun ez zaie betekizun hori eskatzen gizonei, zeren baldintza diskriminatzailea zela erabaki zenez egoera berdinean baitaude orain alargun gertzen diren gizonak eta emakumeak.

Familitartekoen aldeko prestazioetan, lehen azaldu dugunez; beste betekizun batzuez gain zera eskatzen da: prestazioen, onuradunak errenta nahikorik ez izatea eta hildakoaren menpe egotea ekonomikoki. Adierazgarria da ikustea nola erabakitzen den errenta horiek nahikoak ez direla eta menpekotasun ekonomikoa dagoela, prestazioaren onuradunaren sexuaren arabera:

- gizonen kasuan, 60 urte izan behar dituzte gutxienez, edo lanerako ezinduta egon;
- emakumeen kasuan, alargun edo ez-



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

kongabe izan behar dute, edo lanerako ezinduta dagoen gizon baten emazte.

Beraz, gizonen kasuan lan egiteko ezintasuna da baloratzen dena; emakumeen kasuan, ordea, bizirik irauteko diru-sarrerak ekar ditzakeen ezkontidea edo beste familiar tekoren bat ez izatea etxean.

Konstituzioak berdintasuna bermatu behar duenez, printzipio horrek bertan behera utzi ditu prestazioak lortzeko betekizunen esparruan gizonen eta emakumeen artean zeuden desberdintasunak. Nolanahi ere, xede horrekin egin den homologazioak akats bat izan du, zeren egin duena prestazioak beste sexuko pertsoneri modu mimetikoan eramatea izan bai-

ta (adibidez: alarguntza-pentsioak gizoni), nahiz eta prestazio horiek emakumeek hein handi batean jadanik gaintitu dituzten behar historikoetatik datozen, gizonentzat arrotz samarrak izateaz gain.

Alarguntza-pentsioaren sorburua hauxe zen: familiaren diru-sarrerak ekartzen zituen pertsonaren -senarraren- heriotzaren eraginez emakumei -gehienak lan merkatutik kanpo baitzeuden- sortzen zitzaien premia-egoerari erantzutea. Beraz, emakume gehienek egoera bati erantzuten zien; gizonen artean, ordea, salbuespena zen egoera hori; horregatik, gizonek ezinbestekoa zuten hildako emaztearekin menpekotasun ekonomikoa zutela egiaztatzea; emakumeen ka-



suan, aldiz, hori horrelakoa zela ulertzen zen berez, errealitate sozialak hala zela erakusten zuen eta.

Prestazio sozialek ustez lortu behar duten xedean gertatutako disfuntzio eta haustura horren eraginez egoera onartezinak sortzen dira: muturreko pobrezian dauden pertsona askori oso prestazio txikiak ematen zaizkie; beste egoera batzuetan, ordea, soldatak jasotzeaz gain gizarte segurantzaren prestazioak eskuratzeko dituzte onuradun batzuek. Egoera horiek oso eragin nabarmena dute emakume batzuen artean, batez ere lan merkatura iristeko zailtasunak izateagatik - faktore ugari direla medio- munta gutxi-ko alarguntza-pentsioekin aurrera atera behar duten emakumeen kasuan.

Edozein prestazioren gehienezko zenbatekoa 303.960 pta/hilero da: 4.255.440 pta urtean 2000. urterako.

Aipatutako pensioen gutxienerako zenbatekoa honako hau da 2000. urterako ¹²:

- 65 urtez erretiratu eta bere ardurapean ezkontide bat duenaren pensioa: 70.650 pta/hilero.

- Bere ardurapean ezkontiderik izan gabe 65 urtez erretiratzen denarena: 59.990 pta/hilero.

- Alarguntza-pentsioa, 65 urterekin: 59.990 pta/hilero.

- Alarguntza-pentsioa, 60 eta 64 urte bitarte izanez gero: 52.735 pta/hilero.

- Alarguntza-pentsioa, 60 urte baino gutxiago izanez gero: 42.080 pta/hilero.

- Alarguntza-pentsioa, 60 urte baino gutxiago eta famili kargak izanez gero: 52.735 pta/hilero.

- Umezurtz-pentsioa: 17.355 pta/hilero.

- Familartekoen aldeko pensioa: 17.355 pta/hilero.

- Familartekoen aldeko pensioa, 65 urteko onuradun bakarra egonez gero: 44.690 pta/hilero.

- Familartekoen aldeko pensioa, 65 urte baino gutxiago duen onuradun bakarra egonez gero: 42.080 pta/hilero.

KOTIZAZIO GABEKO prestazioetan, erretiroaren onuradunak hauexek dira: 65 urte baino gehiago izanda, denbora nahikoz kotizatu ez duten eta bizirik irauteko behar bezainbeste baliabiderik ez duten pertsonak. Baliabide nahikorik ez dutela esateko, onuradunaren urteko errentek 531.370 pezetakoak baino txikiagoak izan behar dute. Beste pertsona batzuekin bizi izanez gero, zenbateko hori %70 igoko da -oro har- gehitzen den pertsona bakoitzeko. Prestazio horren gehienezko zenbatekoa 531.370 pezetakoa da, urteko, eta onuradunak jasotzen dituen erren-

¹² Zenbatekoak 2000. urterako dira eta urteko 14 paga dituzte.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

ten neurri berberean murriztu egingo da. Nolabait, kotizazio gabeko pentsioa pobrezia-mugatzat har daiteke, gutxieneko diru-sarreraren bermetzat hartzen baita.

Gainerako kasuak gizarte bazterketari aurre egiteko programetan sartuko dira, adibidez: prestazioak kobratzeko esku-biderik ez duten alargunak, 65 urte baino gutxiago eta diru-sarrera nahikorik ez duten pertsonak..

Balorazio konparatzaile batekin hasteko, adin aktiboan dauden pertsonen babes txikiagoa da Espainiar Estatuan beste herrialde batzuetan baino, diru-sarrerak bermatzeari dagokionez (Europako Batzordea, 1995). Gainera, gastuaren banaketa nabarmenki aldatu da. Hala, 1967an, pentsioak etekin ekonomiko guztien osoko gastuaren erdia ziren; 1986an, berriz, ia %89a ziren, eta 1995ean %90a (CES, 1996).

Beste alde batetik, kotizaziopeko pentsioak pentsio guztien %95a ziren 1991n (CES, 1995). Horrek erakusten du Espainiako pentsio sistemaren printzipioa kotizazioa dela, ez hiritartasun soziala. Izan ere, famili prestazioak oso txikiak dira, eta eskura ditzaketen familia bakarrak urtean milioi bat pezeta baino gutxiago kobratzen dutenak dira. Gutxieneko errentak edo gizarteratze soldatak eskaintzeko autonomia erkidegoek abiatu dituzten programak ere nahiko mugatuak dira.

Horrek esan nahi du, erretiro-pentsio askoren zenbateko txikia gorabehera, lehentasun nagusia adineko pertsonen errentak mantentzea izan dela, adin aktiboan dauden pertsonen babesaren eta beste arlo batzuen kalterako. Hala eta guztiz ere, langabeziak gora egiten duenean bikoteak gero eta ezegonkorragoak dira, eta, hortaz, gero eta gehiago dira pertsona bakar batez osatutako etxeak. Hori arazo larria izan daiteke. Oraingoz, emakumeak laguntza eskaintzen ari dira egoera horiek gainditzeko, baina ez dakigu noiz arte jarraitu nahi izango ote duten hori egiten. Aitzitik, badirudi emakumeek lan egin nahi dutela, eta gero eta gehiago direla nahi hori dutenak; badirudi, halaber, ez daudela prest euren lanbide-karrera eteteko beste pertsona batzuen seme-alabak zaintzeko.

Pentsioak generoaren arabera aztertzerakoan garrantzitsua da kotizaziopeko pentsioak eta kotizazio gabeko pentsioak bereiztea, zeren azken pentsio horien onuradunen artean gehiegizkoa baita emakumeen proportzioa. Kotizaziopeko pentsioei dagokienez, pentsio guztien %50,3a gizonek eskuratzen dute eta %49,7a emakumeek (Espainiar Estatu; CES 1995); edonola ere, pentsioen onuradunak sexuaren arabera nola sailkatzen diren ikusiz gero, pentsio bakoitzean generoaren araberako desberdintasunak daudela antzemango dugu. Izan ere, gi-

zonezko gehienek (%87) erretiro- edo baliaezintasun-pentsioak kobratzen dituzte; emakumeen artean, berriz, %40k baino ez dute horrelakorik jasotzen, zeren gainerakoek alarguntza-pentsioak edo zenbateko txikiagoko beste modalitate batzuk kobratzen baitituzte (INSERSO, 1995). Azken horrek garbi erakusten du emakumeen zati handi batek ez duela eskubide propiorik, ezkontidearen bidez etorritako eskubideak baizik.

Aurrekoaz gain zera esan behar dugu - hurrengo koadroak adierazten duenez: azken hamarkadan erretiro-pentsioak alarguntza-pentsioak baino proportzio handiagoan hazi direla (ez ahaztu alarguntza-pentsioak emakumeek kobratzen dituztela gehienbat).

Batez besteko erretiro-pentsioa askoz ere handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, eta adinean igo ahala txikitu egiten da haren zenbatekoa, hurrengo koadroak erakusten duenez; horren eraginez, pertsona zaharrenak diru-sarrera txikiak dituzte, batez ere emakume zaharrek. Gainera, batez besteko pentsiorik txikiak erregimen berezietan kobratzen dira -nekazaritza, autonomoak eta etxeko zerbitzua-, hau da, emakume ugari dituzten erregimenetan. Emakumeen kontrako desberdintasun horien artean dagoen salbuespen bakarra alarguntza-pentsioetan aurkitzen dugu, horrelako pentsioak kobratzen dituzten emakumeak direlako diru-sarrerarik handienak eskuratzen dituztenak (53.200 pezeta emakumeek eta 46.300 pezeta hi-

PENTSIONEN BILAKAERA EAEn.

| | Batez besteko pentsioa | | Erretiro-pentsioa | | Alargun-pentsioa | |
|------|------------------------|---------|-------------------|---------|------------------|---------|
| | Zenbatekoa | Indizea | Zenbatekoa | Indizea | Zenbatekoa | Indizea |
| 1992 | 67.094 | 100 | 77.273 | 100 | 44.724 | 100 |
| 1993 | 71.595 | 106,7 | 83.122 | 107,6 | 47.604 | 106,4 |
| 1994 | 73.479 | 109,5 | 85.669 | 110,9 | 48.433 | 108,3 |
| 1995 | 78.694 | 117,3 | 92.037 | 119,1 | 51.355 | 114,8 |
| 1996 | 83.633 | 124,7 | 98.416 | 127,4 | 54.527 | 121,9 |
| 1997 | 87.727 | 130,8 | 101.956 | 131,9 | 56.813 | 127 |

Iturria: Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza Nagusiak prestatutako datuak. Eusko Jauriaritza. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala. Urteko estatistikei buruzko txostena.

¹³Lanaren eta Gizarte Gaien Ministerioak Espainiar Estatuari buruz emandako datuak. 1999.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

ERRETIRO-PENTSIOAK, SEXU ETA ADINAREN ARABERA. ESPAINIAR ESTATUA. 1999.

ESTATUKO BATAZ BESTEKO ZENBATEKOA, hileko pezeta milakoetan.

| | BI SEXUAK | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---------------------|-----------|---------|-----------|
| GUZTIRA | 85,5 | 97,3 | 61,0 |
| 60 urtetik behera | 165,3 | 167,0 | 94,8 |
| 60-64 urte | 96,9 | 102,4 | 67,1 |
| 65-69 urte | 96,0 | 106,4 | 68,7 |
| 70-74 urte | 89,3 | 100,1 | 65,0 |
| 75-79 urte | 82,4 | 94,3 | 60,3 |
| 80-84 urte | 72,4 | 84,9 | 55,2 |
| 85 urte eta gehiago | 57,9 | 67,8 | 47,4 |

Iturria: Lanaren eta Gizarte Gaien Ministerioa.

lero gizonek). Izan ere, gizonen pentsioa beraien emazteek kotizatutako dirutik dator, eta kotizazio horiek gizonenak baino txikiagoak izan ohi dira; kontuan hartu behar da, dena dela, pentsio hori bateragarria dela laneko errentekin.

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da kotizazio gabeko pentsio asistentzialak oso feminizatuta daudela. Pentsio asistentzialetan, emakumeak onuradunen %77,4a dira (Espainiako CES, 1995). Eskuratzen diren zenbatakoei dagokienez, lehen aipatutakoak ikusi besterik ez da egin behar, aski argigarriak baitira.

Balorazio kontzeptualago bat eginez, eta pentsioa lan egiteko gaitasunik ez duten pertsoneri eskaintzen zaien diru-sarrerara bat dela kontuan hartuz -horixe dio beraren definizioak-, feminismoaren eta generoaren ikuspegitik bada esan beharretako gauza pare bat. Hasteko, lanari buruz hitz egitean erabiltzen den kontzeptua soldatoko lana da, eta hori errealitate sozioekonomikoari buruzko ikuspegi nahiko partziala da, zeren bizirik irauteko eta gizarte birsorkuntzarako beharrezkoak diren lanak kanpo uzten baititu, hau da, ez du kontuan hartzen etxeko famili lana. Orobat, azpimarratu behar da soldatoko

lan batzuk legez kanpokoak direla, hala nola "ezkutuko lana", eta, hortaz, hor aritzen direnek ez dutela pentsioa eskuratzeko eskubiderik. Etxeko langile ugari egiten duten lana atal horretan sartzen da. Bigarrenik, "pentsioari" buruzko edozein definizio "lan egiteko ezintasuna" aipatzen du, modu zuzenean edo zeharkakoan, eta ikuspegi hori gizonezkoek bultzatua da; izan ere, emakume gehienek lanean jarraitzen dute 65 urte egin eta gero (osasun arazoak izan arren), hau da, lan merkatutik irteteko legez ezarri den adina bete arren lanean jarraitzen dute.

Lan merkatuaren dinamikak eta horrek gero prestazioen erregimenean duen eragina aztertzerakoan, azpimarratu behar da emakumeen jarduera eta okupazio tasak gizonezkoenak baino askoz ere txikiagoak direla oraindik ere, Europako herrialde gehienek baino txikiagoak izateaz gain. Gainera, emakumeek proportzio handiagoan lan egiten dute aldi baterako lanetan, famili laguntzan edo ezkutuko ekonomian, eta horrek zailtasunak sortzen dizkie kotizaziopeko pentsioak lortzeko bete behar diren baldintzak betetzeko. Horrez gain, soldata mailan dauden desberdintasunak hartu behar dira aintzatzat: desberdintasun horiek baldintzatu egiten dute erretiro-pentsioen zenbatekoa, pentsio horiek lanean jasotako soldataren arabera direlako. Hori horrela izan arren, emakumeen artean ikus dai-

tezkeen desberdintasunik handienak lanean dutenen eta lanik ez dutenen artekoak dira; egoera hori ez da beste herrialde batzuetan gertatzen, zeren bertan emakume gehienak soldatako lanak egiten dituzte, eta, horrenbestez, desberdintasunak lan "onen" eta "txarren" artean sortzen dira (Celia Valiente, 1997).

Espainiar Estatuko lan merkatuaren bilakaerak beste segmentazio nabarmen bat sortu du emakumeen artean, hain zuzen ere etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen artean. Lehenengo desberdintasuna, agian nagusia, adinaren arabera bereizkuntza da; alde batetik, hezkuntza eskuratu ahal izan duten emakume gazteak daude; berauek lanean hasteko aukera gehiago izan dituzte ekonomiaren oparaldietan; beste alde batetik, beraien adinagatik aukera horiek izan ez dituzten emakumeak ditugu. Bigarren desberdintasuna hezkuntza mailarekin du zerikusia. Goi mailako hezkuntza jaso duten emakumeak lan merkatuan integratu dira: gehienak sektore publikoan, baina gutxiengo bat enpresa pribatura ere iritsi ahal izan da. Prestakuntzarik ez duten edo behe mailako prestakuntza duten emakumeen egoera oso bestelakoa da, zeren aukera gutxi izaten baitituzte lanpostuak aurkitzeko.

Bukatzeko, beraz, hauxe esan daiteke: pentsioen sistema egituratu dela errenta

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

gizonen eta emakumeen artean nola birbanatu ote daitekeen sakon eztabaidatu gabe. Era horretan, gaur egungo sistemak kotizaziopeko prestazioen eta kotizazio gabeko prestazioen artean egiten duen bereizkuntzak pertsona batzuk diskriminatzen ditu, hain zuen ere lan merkatuan -hainbat arazo direla medio- ez dauden edo modu ezegonkorrean dauden pertsonak. Alde horretatik, emakumeak bereziki baztertuta daude, beraiek direlako lan merkatuan parte hartzen ez dutenak eta etxeko famili lana baino egiten ez dutenak, edota bi lan horiek egiten dituztenak. Hau da, lan merkatuan parte hartzea mugatzen duen egoera batean bizi dira. Pentsioen sistemaren ardatza kotizaziopeko pensioak direnez, pensiodunen diru-sarrerak lanean zihardutenean zuten estatusarekin daude lotuta, eta horrek luzatu egiten du lehendik ezarritako desberdintasuna.

Zoritzarrez, Gizarte Segurantzaren etorkizunari buruzko eztabaidaren muina sistemaren bideragarritasun finantzarioa da. Horren adierazlerik garbiena da "Gizarte Segurantzaren sistemaren arazo estrukturalak eta egin beharko liratekeen erreforma nagusien azterketarako lantaldeak prestatutako txosten proiektua", hots, Espainiako Diputatuen Kongresuak 1995ean onartu eta "Toledoko Itunak" izenez ezagutzen den testua.

Itun horretan hiru pensio mota ezartzen dira. Lehenengoa kotizaziopekoa/profesionala da: beraren kudeaketa publikoa da, eta enpresek eta langileek kotizatutako diruaren bidez finantzatzen da, nahiz eta, gastua murriztu nahi denez, muga bat ezarri den zenbatekori dagokionez. Bigarrena kotizazio gabekoa/unibertsala da: beraren kudeaketa publikoa da eta estatuaren aurrekontuen bidez finantzatzen da; erretiro- eta ezintasun-pensio asistentzialak dira, baita famili prestazio batzuk ere. Eta, azkenik, modalitate osagarria: kudeaketa eta finantziazio pribatuko sistema bat, borondatezko kapitalizazio indibidualean oinarritua. Gobernuak eta sindikatuek gero sinatuko zuten itunak hiru neurri nagusi onartu zituen: pensioen zenbatekoa murriztu egiten da erretiro aurreratuan edo kotizazioa 35 urte baino gutxiagokoa den kasuetan; gainera, kalkulua egiteko garaia (kalkulua egiteko oinarritzat hartzen den garaia) 8 urtetik 15 urtera luzatzen da, eta, horrez gain, gehieneko kotizazio oinarriak desagertzen dira arian-arian.

Oro har, ondorio hau atera daiteke: etorkizuneko pensiodunek eroste-ahalmen txikiagoa izango dutela, babes sozialari gehieneko muga bat jarri zaiolako; pensioen sistemak gero eta izaera asistentzial handiagoa hartzen du, sektore publikoak beharrezkotzat jotzen diren minimoak bermatzeko ardura hartzen baitu;

beste alde batetik, pentsioen sistema pribatua sustatzen da, eta gogortu egiten dira bai pentsio publikoak lortzeko eta bai pentsio horien zenbatekoa ezartzeko baldintzak. Azken batean, beraz, pentsioen sistemaren dualizaziora goaz: alde batetik, gutxieneko pentsioak bermatuko dituen sistema publiko asistentzial bat izango dugu; eta, bestetik, sistema pribatu osagarri bat, errenta mailarik handiena duten sektoreengana soilik zuzendua.

Proiektu horretan, behin baino ez da aipatu birbanaketa eta babes soziala hobetzeko beharra, hain zuzen ere hamabigarren gomendioan: "elkartasuna eta diru-sarreraren nahikotasuna bermatu behar

dira printzipio gisa, finantzen egoerak ahalbidetzen duen heinean; horretarako, honako neurri hauek har daitezke: umezurtz-pentsioak jasotzeko ezarri den gehienezko adina igotzea; edo alarguntza-pentsioak hobetzea diru-sarrera txikiak dituztenen kasuan". Oso esanguratsua da "finantzen egoerak ahalbidetzen duen heinean" esaera.

Beraz, 1980 eta 1999 bitartean pentsioen inguruan egin den legediak emaitza garbiak ditu. Lehenengoa, pentsioak unibertsalizatu egin dira, baita aldi berean izaera asistentzialagoa hartu ere. Bigarrena, pentsioa lortzeko eta pentsio horren zenbatekoa kalkulatzeko baldintzak go-



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

gortu egin dira. Gainera, kontuan hartzen baldin badugu lan merkatua ezegonkor-tzen ari dela eta gero eta emakume langile finko gutxiago daudela, badirudi pentsioen sistemak ez dituela desberdintasunak konpontzen, areagotzen baizik; izan ere, laneko ezegonkortasunak murriztu egiten ditu pentsioak eskuratzeko eskubideak, bai kotizazioetan gertatzen diren irregulartasunengatik eta bai soldatuko lanaldiagatik (gainera, agerikoa denez, langile ezegonkorrek zailagoa izango dute pentsio pribatu bat eskuratzeari). Orobat, komenigarria da gogoratzeari pentsioak eskuratzeko baldintzak gogortzen diren bakoitzean emakumeak direla horren ondorioak gehien pairatzen dituzten taldeetako bat, hain zuzen ere lan merkatuarekin duten lotura askoz ere ahulagoa eta ezegonkorragoa delako. Edozein kasutan, oinarrian dagoen arazoa hau da: "ez dago alde aurretiko akordiorik, ez errenta nazionalaren banaketaren inguruan, ez lan merkatu erregulartatik kanpo, edo barruan baino egonkortasun nahikorik gabe, egon diren pertsonen aitortu behar zaizkien eskubide ekonomikoen inguruan (etxekoandreak, ezkutuko ekonomiako langileak, egoera oso ezegonkorrean lan egiten duten langileak, etab.). Horrelako akordiorik ez egotea eta errentaren banaketari buruz

eztabaida izpirik ez sortzea iragarpen txarra da, zeren garbi uzten baitu presio-ahalmenik handiena duten talde sozialen interesak nagusituko direla, hau da, langile egonkorren, enpresarien eta sindikatuen interesak"¹⁴.

4.2. LANGABEZI PRESTAZIOAK

Langabezi prestazioa eskuratu ahal izateko legez ezartzen diren betekizunak (pentsioekin gertatzen den bezala) printzipio desberdinetan oinarri daitezke, eta, hortaz, printzipio orientatzaile bakoitzak ondorio desberdinak izango ditu talde sozialentzat, errentaren banaketari dagokionez. Hala, oinarria eskubide unibertsal bat baldin bada, prestazioa langabe guztiei emango zaie; eskubidearen filosofia aktuariala baldin bada, ordea, dirulaguntzak kobratzeko eskubidea lehenago ordaindutako kotizazioei lotuta egongo da; bigarren kasu horretan, lan merkatuan lan egin ez duten pertsona guztiak babesik gabeak izango dira. Gainera, eskubidea selektiboa izan daiteke eta baldintza batzuk betetzeari atxikita egon (famili ardurak, adina, gehienezko errenta, etab.), halako moldez non kolektibo batzuek mugatuta izango duten babesa jasotzeko eskubidea. Printzipio horiek hautagarritasun irizpideetan islatuko

¹⁴ González Calvet, "Reforma y futuro del sistema de protección social". Mientras Tanto aldizkariaren 61. zenbakia, negua, 1997. VVAA. "Mujeres, trabajos y políticas sociales: una aproximación al caso español". Instituto de la Mujer, 1997.

dira, eta irizpide horien zorroztasun mailak eragina izango du sistemaren ekitatean. Adibidez, sexuaren arabera desberdintasunei dagokienez, printzipio aktuarietan oinarritutako sistemak kotizazio-aldi handi eta iraunkorra ezar lezake baldintza gisa, eta hori kaltegarriagoa izango litzateke emakumeentzat iraunkortasuna ezartzen ez duen sistema bat baino, zeren emakumeen lan-historiak gizonenak baino etenakagoak izaten baitira.

Horrenbestez, beharrezkoa da indarrean dagoen enpleguaren eredia eta egitura eskubidearen titularitasuna ematen duten betekizunekin lotzea. Alde batetik, eskubidea ematen duena lehen egondako lanlortura bat baldin bada, jarduerarekin lotura ahulagoa eta etenakagoa duten pertsonak (emakume askori gertatzen zaien bezala) sistematik kanpo geratuko liriteke, eta, hortaz, zigortuak izango liriteke gizonen partehartze ereduari ez jarraitzeagatik. Beste batetik, enpleguaren egitura sexuaren arabera desberdintzen bada, eta bertan emakumeek gizonen baino ezegonkortasun handiagoa baldin badute -oro har-, babes maila txikiagoa izango litzateke, beti ere prestazioaren

zenbatekoa lehen jasotako soldatari atxikita egonez gero.

Nolanahi ere, prestazio sistema jakin batek generoen arloan egiten dituen diskriminazioak ez dira argi eta garbi ikusten sektorekako egiturari erreparatzen ez bazaio. Alde horretatik, lan merkatuaren segmentazioak funtsezko eginkizuna du langabeziaren babes sistemaren garapenean. Babes mailarik handienak "betidanik" gizonezkoentzat izan diren segmentu industrialetan daude, eta aintzakotzat hartu behar da bertan langileak indartsuagoak direla kaleratze baldintza egoekiagoak negoziatzerakoan. Recio (1996) dioen bezala, industriako enpresa handietan itundutako kaleratze kolektiboek esker langile gehienek aukera izaten dute langabezi prestazioak kobratzeko, harik eta Gizarte Segurantzaren pentsioen eskeman sartzeko bete behar den adina betetzen duten arte.

Espainiar Estatuan, langabezi prestazioen sistemaren oinarria aktuariala eta selektiboa da; beraren arabera, aseguratuta dauden pertsona bakarrak aurretik lan merkatuan lan egin dutenak (gutxienez hiru hilabetez) eta baldintza batzuk be-

¹⁸ Bada beste dirulaguntza bat: Nekazaritzako Aldi Baterako Langileen Dirulaguntza Berezia. Prestazio hori sistema bereiztu bezala mantentzen da, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Erregimen Berezi bat dagoen bezala, Erregimen Orokorretik aparte. Dirulaguntza horren iraupena 90 eta 180 egun bitartekoa da 52 urtetik beherakoentzat; adin horretatik gorakoentzat, baina, 240 eta 300 egun bitartekoa izatera irits daiteke. Pretazio horregatik eskuratzen den zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren %75a da, gehi Gizarte Segurantzako erregimenari ordaintzen zaizkion kuotak.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

tetzen dituztenak dira. Sistema bi kontentsazio-eskematari dago banatuta: kotizaziopeko eskemari eta eskemari asistentzialean¹⁵. Kotizaziopeko prestazioa edo "oinarrizko" prestazioa bai aurreko kotizazio-aldiari eta bai kaleratzearen aurretik jasotako soldatei dago lotuta. Gaur egun, prestazio hori jasotzeko eskubidea duten pertsona bakarrak gutxienez 12 hilabetez kotizatu zutenak dira. Prestazio asistentziala edo "osagarria" ematen zaie kotizaziopeko prestazioa kobratzen amaitu eta betekizun batzuk -famili ardurei eta adinari lotutako betekizunak- betetzen dituzten pertsonari. Gainera, prestazioa kobratu ahal izateko famili unitatearen errentak ezin du gehienezko muga bat gainditu. 1993ko erreformak ezarritakoaren arabera, prestazio horren zenbatekoa lanbide arteko gutxienezko soldataren %75a izango da gehienez. Eske-ma asistentzialaren barnean sartzen diren beste pertsona batzuk 3 eta 11 hilabete bitartean kotizatu dutenak dira (oinarrizko pentsioa kobratzeko eskubidea ez baitute), baldin eta lehen aipatutako betekizunak betetzen badituzte. Halaber, 6 hilabete baino gutxiago kotizatu dutenek dirulaguntza hori jaso dezakete famili ardurarik ez izan arren. 1992ko erreformak ekarri zuen aldaketa horrek egoera paradoxiko bat sortzen du: "Izan ere, 6 hi-

labetez kotizatu duen pertsona batek 12 hilabetez kotizatu duen beste batek baino prestazio luzeagoa kobra dezake (zenbatekoa txikiagoa bada ere): 6 hilabete lehen kasuan eta 4 bigarren kasuan. Egoera horrek logika bakarra izan dezake: gastua kosta ahala kosta murriztea (badirudi horixe dela lege horretan sartutako erreformaren motore)¹⁶.

Prestazioa jaso ahal izateko betekizunekin zerikusia duten faktoreen artean, bada sexuarekin lotuta dagoen bat: sistema asistentzialak 45 urte baino zaharragoak diren eta 12 hilabetez baino gehiago kotizatu duten pertsonak babesten ditu bereziki, hau da, babes-aldi luzeagoetarako eskubidea duten pertsonak. Aldi luzeko langabeziaren egitura adinen arabera aztertzen badugu, emakume langabe gehienak 16 eta 44 urte bitarteko adinekoak direla ikus daiteke; langabezia-aldi luzeo egoeran dauden gizon gehienek, aldiz, 45 urte baino gehiago dituzte. Sexuaren araberako diferentzial hori are handiagoa da 52 urtetik gorakoentzat (adin horretan posible da prestazioaren kobraketa erretiro-adinera iritsi arte luzatzea); adin horretatik aurrera, langabe gehienak gizonetakoak dira. Langabeen adinaren araberako banaketa horren ondorio nagusia da emakumeen babesa gi-

¹⁵ Toharia, Luis. "La protección por desempleo en España": Juan, O. De; Roca, U eta Toharia, L. "Tres ensayos críticos sobre el desempleo en España". Sistema. Madril. 1996.

zonena baino txikiagoa dela, zeren gizonak gehiago aurkitzen baititugu babesaldi luzeagoko kolektiboetan.

Zenbaitetan, prestazioak nork jaso ditzakeen erabakitzeke irizpideek (adibidez: kotizaziopeko prestazioa agortu eta, haien ardurapean familiarterkorik ez izateagatik, prestazio asistentziala ezin kobra dezaketen pertsonak) emakume gehiago baztertuko dituzte gizonak baino, emakume gehienak ardua gizoneko eskua dagoen etxeetan bizi direlako. Betekizun horrek babesik gabe uzten ditu bi sexuetako gazte ugari, hau da, langabeen talde handi bat.

Prestazioa jasotzen duenaren sexua kontu neutroa ez dela erakusten duen beste betekizun bat kotizazio-aldia da: zenbat eta kotizazio-aldi handiagoa, orduan eta luzeagoa da langabezi prestazioa kobratzeko aldia. Ikusi genuenez, emakumeen artean askoz ere gehiago dira aldi baterako kontratuak dituztenak -gizonak baino-. Horrek zuzeneko eragina du lehenetik kotizatu den osoko denboran, eta, hortaz, kobraketa aldian murriztu egiten du geroago.

Emakumeen langabezi tasa gizonena baino %10 handiagoa da, gutxienez, 1993tik. 1998an, emakumeen tasa %31,4



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

zen eta gizonena %17,6, EAEn. Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, gizonena %20,6 zen eta emakumeena %20,6. Baina, gainera, aldi luzeko langabeziaren eragina handiagoa da emakumeen artean, batez ere emakume nagusien artean. 1994an, Europako Batasunako herrialde gehienetan handiagoak dira emakumeen langabezi tasak gizonenak baino, Erresuma Batuan izan ezik. Azken kasu horretan kontrakoa gertatzen da: langabezia handiagoa da gizonen artean. Urte horretan, Espainiar Estatuko emakumeen langabezi tasa bere atzetik datorren hurrengo herrialdearen tasa baino bi aldiz handiagoa zen. Hala, Espainiako tasa %31 zen eta Italiakoa %16 (Instituto de la Mujer, 1997).

Tasarik txikienak zituzten herrialdeak hauexek ziren 1994an: Luxenburgoko (%4), Erresuma Batua (%7), Portugal (%8) eta Herbehereak (%8). Gizonen eta emakumeen batez besteko tasen arteko diferentzia %3 zen, oro har, Europako Batasun-

nean. Ehuneko horri dagokionez, azpimarratzekoa da diferentziak nabarmenki handiagoak direla Espainiar Estatuan (%11), Grezian (%8) eta Italian (%7). Erresuma Batuan, gizonen langabezi tasa emakumeena baino %4 handiagoa da. Irlandan ez dago ia desberdintasunik arlo horretan, eta Luxenburgon, Herbehereetan, Danimarkan eta Portugalen ez dira %2ra ere iristen (Instituto de la Mujer, 1997).

Langabezi tasa handiak izan arren, emakumeak %40a baino ez dira Hego Euskal Herrian 1999an langabezi prestazioak kobratu zituzten pertsonen artean. Bai emakumeen kasuan eta bai gizonen kasuan ere, kotizaziopeko prestazioak prestazio asistentzialak baino gehiago dira. Gizon langabeen %57k kotizaziopeko prestazioak kobratzen dituzte, eta gauza bera gertatzen da emakumeen %43rekin. Kotizazio gabeko prestazioei dagokionez, gizonen %63 eta emakumeen %37 dira haien onuradunak. Horri dago-

LANGABEEN BABESA. KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK. 1999.

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|-----------|---------|---------|-----------|
| ARABA | 23,85 | 42,02 | 26,26 |
| BIZKALIA | 14,42 | 22,34 | 9,17 |
| GIPUZKOA | 21,59 | 36,62 | 14,29 |
| NAFARROA | 31,91 | 51,93 | 22,52 |
| HEGO E.H. | 19,05 | 29,93 | 13,32 |

Iturria: Lanaren eta Gizarte Gaien Ministerioa.

LANGABEEN BABESA. PRESTAZIO ASISTENTZIALAK. 1999

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|-----------|---------|---------|-----------|
| ARABA | 13,70 | 26,84 | 12,91 |
| BIZKAIA | 12,97 | 23,39 | 6,07 |
| GIPUZKOA | 14,00 | 22,80 | 9,64 |
| NAFARROA | 20,54 | 30,28 | 15,99 |
| HEGO E.H. | 14,22 | 24,33 | 8,74 |

Iturria: Lanaren eta Gizarte Gaiien Ministerioa.

**LANGABEZI PRESTAZIOAK KOBRATU ZITUZTEN PERTSONEN
EHUNEKOAK, ESKUBIDEAREN IRAUPENAREN, SEXUAREN
ETA ADINAREN ARABERA. ESPAINIAR ESTATUA. 1999.**

EHUNEKOEN ARABERAKO BANAKETA

| | Guztira | 4-6 hilabete | 8-12 hilabete | 14-18 hilabete | 20-22 hilabete | 24 hilabete |
|---------------------|---------|-----------------|------------------|-------------------|-------------------|-------------|
| GIZONAK | | | | | | |
| Guztira | 100,0 | 21,6 | 19,4 | 11,3 | 8,6 | 39,2 |
| 16-19 urte | 100,0 | 2,6 | 97,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 20-24 urte | 100,0 | 16,8 | 78,9 | 3,1 | 0,8 | 0,3 |
| 25-34 urte | 100,0 | 40,3 | 0,8 | 23,4 | 14,5 | 21,0 |
| 35-44 urte | 100,0 | 23,0 | 13,1 | 13,0 | 10,4 | 40,5 |
| 45-54 urte | 100,0 | 11,9 | 35,1 | 6,9 | 5,7 | 40,4 |
| 55 urte eta gehiago | 100,0 | 4,7 | 16,6 | 5,7 | 7,5 | 65,5 |
| EMAKUMEAK | | | | | | |
| Guztira | 100,0 | 24,9 | 22,4 | 13,2 | 9,5 | 30,0 |
| 16-19 urte | 100,0 | 78,0 | 21,2 | 0,5 | 0,0 | 0,3 |
| 20-24 urte | 100,0 | 47,1 | 33,7 | 11,5 | 4,5 | 3,2 |
| 25-34 urte | 100,0 | 24,0 | 25,4 | 16,2 | 11,3 | 23,0 |
| 35-44 urte | 100,0 | 23,0 | 18,6 | 11,8 | 9,2 | 37,5 |
| 45-54 urte | 100,0 | 21,1 | 18,5 | 11,0 | 8,5 | 40,9 |
| 55 urte eta gehiago | 100,0 | 10,4 | 10,1 | 7,7 | 8,2 | 63,6 |

Iturria: Lanaren eta Gizarte Gaiien Ministerioa. 1999.

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

kionez, kontuan hartu behar dugu soldata mailan dagoen diskriminazioa (emakumeen batez besteko soldata gizonena baino %25-30 txikiagoa da), zeren langabezi prestazioak lehen kobratutako soldataren portzentaje bat baitira.

Dena dela, langabezi prestazioen babes-maila neurtzen baldin badugu, hau da, langabeen artean zenbatek kobratzen duten neurtzen badugu (ikus hurrengo koadroa) zera ikus daiteke: kotizaziopeko prestazioen kasuan gizonek duten babes emakumeena baino bi aldiz handiagoa dela, eta asistentzialen kasuan ia hiru aldiz handiagoa.

Eta langabezi prestazioen kobraketa-aldia aztertzen badugu -Espainiako datuei buruzko hurrengo koadroak erakusten duenez-, emakumeek kobratzen dituzten prestazioen iraupena gizonek kobratzen dituztenarena baino laburragoa dela ikusiko dugu.

Etorkizunari begira, kontuan hartu behar da euskal emakumeek nabarmenki hobetu dutela euren prestakuntza azken hogeitun urteotan, eta bi sexuetako pertsonen hezkuntza maila parekatu egin dela. Hala eta guztiz ere, lan merkatu iristeari dagokionez gazteek izan dituzten arazo berberak izan dituzte emakumeek ere, lana malgutzeko eta lanaldi partziala errazteko politikek (orain arte indarrean

zeuden kontratuetan ez dute eraginik izan) baldintzatu egin baitute lan integrazio hori, halako moldez non emakumeek eskuratu ahal izan dituzten lanpostuak sektore formalekoak baino ezegonkorragoak eta soldata txarragoak diren. Horrek eragin nabarmena du emakumeek independentzia ekonomikoa lortzeko dituzten aukeretan. Izan ere, independentzia hori nahiko hauskorra da lan merkatuan etengabe sartu-irtenak egiten dituen pertsona batentzat, batez ere egoera horrek noiz arte iraungo ote duen ez badaki.

Prestazioa jaso ahal izateko Espainiako prestazio sistemen oinarrian dauden printzipio eta irizpideak oso lerratuta daude gizonen alde. Okupazioaren ereduak eta egiturak eta sektorekako banaketak errealitatean bultzatzen duten babes sistema aldekoagoa da gizonentzat emakumeentzat baino (hala babestutako pertsonen kopuruari dagokionez nola gizonen emakumeen aldean duten posizio ekonomikoari dagokionez).

Azken urteotan indarrean jarri diren erretortzen eraginez sistema aldatu da: kotizaziopeko mailatik maila asistentzialera jo du sistemak, hau da, emakumeak nagusi diren mailarantz; beste alde batetik, sexu-gatik zegoen diskriminazioa mugatu egin duten aldaketa batzuk egin dira (kotizaziopeko mailaren gehienezko mugak, adibi-

dez). Nolanahi ere, sistemaren orientazioak hainbat arazo sortzen ditu (orientazio horren ardatza gastu publikoa murrizteko Maastrichten hartu ziren erabakiak dira). Lehenik, maila asistentziala "feminizatu" egin da, kotizaziopeko mailarekin alderatuz gero. Horrek hainbat ondorio dakartza, alde batetik eskubideak balioa galdu duelako, eta bestetik babes maila murriztu egin delako. Bigarrenik, babes mailak "behetik" berdintzea kaltegarria izango litzateke prestazioak jasotzen dituzten guztientzat, eta, gainera, pobrezia-esparru handiagoak sortuko litzuzke.

4.3.- AMATASUNA ETA HAURDUNALDIKO ARRISKUAK

Amatasuna babestera zuzendutako neurriek bi alderdi dituzte. Alde batetik, emakume langileak eskubidea du amatasun baimena hartzeko bere semea edo alaba jaiotzen denean, edota baimen bat hartzeko haur bat adoptatu edo hartu baino lehenago. Baimen hori hartzen duenari bermatu egiten zaizkio lanpostua, antzinasuna eta erretiro-pentsio bat jasotzeko eskubidea. Beste alde batetik, baimenak dirauen bitartean prestazio ekonomiko bat kobratzeko eskubidea du amatasun egoeran dagoen emakumeak. 1994ko abendura arte -data horretan aldatu baitziren amatasuna babesteko programak Estatu Espaniarrean-, emakume langileen amatasuna gaixotasun arrun-

tengatik sortzen zen aldi baterako ezintasunarekin parekatzen zen, eta, hortaz, legezko egoera nahiko antzekoa zen bi kasuetan, babes sozialari dagokionez. Gaur egun, ordea, amatasunak arau propioak ditu, aldi baterako ezintasuneko egoeretatik aparte.

Berriki, 1999ko azaroan, "langileen familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko" 39/1999 legea onartu da. Lege horren bitartez, amatasun prestazioarekin eta ordaindutako baimenekin zerikusia zituz-



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

ten alderdi batzuk aldatu dira, baita "haurdunaldiko arriskua" (haurdunaldian gerta daitezkeen arriskuak) izeneko prestazio berri bat sortu ere. Jarraian aldaketa horietako batzuk azalduko ditugu, batez ere amatasunaren ingurukoak.

Amatasun/aitatasun prestazioari dagokionez, parekatu egiten dira adopzioaren eta amatasun/aitatasun biologikoaren eskubideak. Dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri arautzailearen %100a jarraitzen du izaten, nahiz eta aldi berean seme-alaba bat baino gehiago izanez gero handi daitezkeen. Dirulaguntzaren gehieneko iraupena 16 astekoa da; aldi berean seme-alaba bat baino gehiago erdituz gero, berriz, 2 aste gehiagoruz luzatuko da prestazioa seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera. Baimena noiz hartzen den interesatuak erabakiko du, baina gutxienez 6 aste erditzearen ostean hartu behar dira.

39/1999 legeak 4tik 10era handitzen du baimenaren azken asteetan amatasun baimena aitari emateko eskubidea, baldin eta bai amak eta bai aitak lan egiten badute eta emakumeak eskatu badu baimena aitari pasatzeko eskubidea. Beste berrikuntza bat da amatasun/aitatasun baimena denbora partzialan har daitezkeela aurrerantzean.

Adopzioari dagokionez, bertan behera

uzten da haurren adina dela-eta lehen egiten zen bereizkuntza (alde batetik 9 hilabete baino gutxiagoko haurrak, eta bestetik 9 hilabete eta 5 urte bitartekoak). Adopzio baimena 16 astekoa da aurrerantzean, kasu guztietan, sei urte baino gutxiagoko seme-alaba guztientzat.

Prestazioa kobratu ahal izateko lehengo betekizunari eusten zaio, hau da, gutxienez 180 egunez kotizatu behar da baimena hartzeko eskubidea ematen duen gertaera gertatu baino lehen, hots: erditzearen aurreko 5 urteetan edo haurra hartzeko edo adoptatzeko erabaki administratiboa hartu edo epaia eman baino lehenagoko 5 urteetan 180 egunez kotizatu behar da.

Haurdunaldirako arriskurik egonez gero eta lanpostuz aldatzea ezinezkoa izanez gero, kontratua eten egin daiteke. Kasu horretan, emakume langileak "haurdunaldiko arriskua" izeneko prestazioa eskura dezake. Horretarako, aurretik 180 egunez kotizatzeko beharrari eusten zaio. Dirulaguntzaren zenbatekoa oinarri arautzailearen %75a da, eta kobraketa kontratua eteten den egun berean hasiko da.

Bularra emateko baimenari dagokionez, emakume langileek ordubete har dezakete libre egunerorik; ordu hori, gainera, bi zatitan har daiteke. Orain arte, aukera horren ordez ordu erdiz murriz lezakete emakumeek "lanegun normala", xede ho-

rretarako. "Lanegun normala" esatean pentsatzen zen osoko lanaldiaz hitz egiten zela, eta, beraz, lanaldi partzialeko lanetan murriztu egin behar zela lanordu kopuruaren araberako proportzioan. Lege berriak garbiago hitz egiten du horretaz, esanez emakumeek ordu erdiz murriz dezaketela "euren laneguna".

Aipatutako legea baloratzera koan, aldaketa positiboak dakartzala esan daiteke. Nolanahi ere, aldaketa horiek nahiko mugatuak dira, eta etxeko lanak banatzeari lotutakoan ez da planteamendu sakonik egiten, ezta beste alderdi batzuk -gizarte zer-



8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

bitzu kolektiboak...- kontuan hartzen ere. Hain zuzen ere, onuradun nagusiak funtzionarioak edo lanpostu finkoak dituztenak dira -hau da, emakumeen gutxiengoa-, zeren lan merkatuan orain dela gutxi integratu direnez, eta lan errotazioa kontuan harturik, aurretik 180 egunez kotizatze beharrak oztopatu edo atzeratzen baitu prestazio hori eskuratzeko aukera. Egoera, baina, are larriagoa da aldi baterako kontratuak dituzten emakumeentzat, batez ere sektore pribatuan lan egiten baldin badute; izan ere, enpresariak eskumen gehiago dituztenez, familiako eta laneko gaiek bananduta jarraitu beharko dute, hurrengo kontratua arriskuan ez jartzeko.

"Haurdunaldiko arriskua" izeneko prestazio berriari dagokionez, esan behar den lehen gauza da enpresa gehienek ez dutela aplikatzen laneko osasunari buruzko legedi berria, eta, horrenbestez, egin gabe dutela laneko arriskuen mapa. Beraz, prestazio hori noraino aplikatzen ote den ikusi beharko da.

"Familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko" neurriei dagokienez, amatasun baimena amaren eta aitaren artean banatzea dela eta zera esan behar da:

- Orain arte, gizonak azken 4 asteak har zitzaketan, baimenaldiko 16 asteetatik. Badirudi, hala ere, gizonen %1ek baino ez zuela hartzen baimenaldi hori. Espai-

niako Emakumearen Institutuak emandako datuen arabera, 1997an 26.000 amatasun baimen egon ziren; aitatasun baimenak, ordea, 300 baino ez ziren izan.

- Legeak ez du inolako neurririk planteatzen gizonak famili arduetan gehiago txertatzeko, eta ez du inolako ahaleginik egiten bi sexuen arteko soldata desberdintasunak berdintzeko, nahiz eta desberdintasun horien eraginez emakumea izaten den baimena eta eszedentziak eskatzen dituen, bera izaten delako diru-sarrerara txikiak dituen; gainera, ez dira gizarte zerbitzu kolektiboak bultzatzen: haurtzaindegiak, hirurgarren adinekoentzako etxeak, eguneko zentroak, etxeko laguntza, ... Azken batean, eskubide berberak aitortzen zaizkie bi sexu-etako pertsonari, baina amak izan ohi dira eskubide horiek erabiltzen dituztenak.

- Alde horretatik, aitatasun eskubidea amatasun eskubidearen lagapen bat da, eta aukera hori ezin balia daiteke emakumearen lana lan ordaindua ez bada. Hau da, lehenengo asteetako aitatasuna beharrezkoa izango balitz bai gizonentzat eta bai emakumeentzat, "aitak harreman estuagoa izan lezake hasieratik beretik jaioberriarekin, eta, hortaz, gizonak ez luke "zeu hobeto moldatzen zara" ideia erabiliko -amari buruz hitz egiten-, hori, baina, ezinbestean gertatzen da gaur egun, aitak eta amak harreman maila desberdina dutelako jaioberriarekin. Aitatasun batak amarekin parekatuko luke aita enpre-

saren aurrean, hots: aita ere derrigorrezko absentista izango litzateke, seme-alabarik egin nahi izanez gero"¹⁷.

Egoera hori Europako Batasunako gainerrako herrialdeekin alderatuz gero ikus daitekeenez, bertako amatasun prestazioen iraupena gutxienez 14 astekoa da. Europako hegoaldeko estatueta iraupenak Espainiar Estatukoaren antzekoak dira. Prestazioaren zenbatekoak langilearen soldatarekin duen loturari dagokionez, prestaziorik onenak Portugalgoak eta Frantziar Estatuak dira (soldataren %124 eta %113, hurrenez hurren); txarrenak, ordea, Erresuma Batukoak dira (%25). Espainiar Estatuan %100 ordaintzen da, eta, hortaz, EBko batez bestekoen gainetik dago. Lehen kobratzen zen soldataren zenbatekoa gainditzen duten herrialdeen artean Belgika, Luxenburgo, Portugal eta Frantziar Estatuak ditugu; kontuan hartu behar da, alde horretatik, lehenengo bietan zergapekoa dela zenbateko hori eta bigarren bietan ez dela zergapekoa (Europako Batasuna, 1993). Hortaz, babes sozialaren arlo horretan ez da desberdintasun handirik antzematen Europako iparraldeko eta hegoaldeko estaturen artean.

Seme-alabak zaintzeko eszedentziari dagokionez, laguntza hori oso mugatua da

EB osoan. Gurasoentzako baimenaren iraupena 10 aste eta 3 urte bitartekoa da. Baja horietako batzuk ordainduak dira. Portugal, Espainia eta Grezian eska daiteke baja hori, baina kobratu gabe; Italian, berriz, soldataren %30a ordaintzen da. Belgika, Irlanda, Luxenburgo eta Erresuma Batuak ez dituzte arautu gurasoentzako baja horiek.

4.4. GUTXIENEN ERRENTAK

Kotizazio gabeko prestazioei dagokionez, Espainiar Estatuan ez dago pobreziaren kontrako babes unibertsaleko mekanismorik, nahiz eta gizarte laguntzaren arloan politika multzo bat eratu den premia-egoeran dauden pertsonentzat. Hala, bada neurri multzo heterogeneo bat, diru-sarrera nahikorik ez duten emakume eta gizonak prestazio ekonomiko bidez babesteko. Multzo horren barnean honako prestazio hauek ditugu: Gizarte Segurantzako gutxieneko pentsioen prestazio osagarriak, ezarritako gutxieneko zenbatekora iristen ez diren pentsioak kobratzen dituztenentzat; kotizazio gabeko pentsioak eta pentsio asistentzialak 65 urte baino gehiagoko pertsonentzat eta pentsioa kobratzeko eskubiderik ez duten minusbaliatuentzat; langabezi dirulaguntzak prestazioak agortu dituztenentzat edo denbora nahikoz koti-

¹⁷ Otxoa Crespo, Isabel: "Conciliación... pero menos" Stee-Eilas sindikatuaren aldizkaria, 23. zkia. (2000ko martxoa).

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

zatu ez dutenentzat; eta Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrerak/gutxieneko errentak, gizartetik baztertuta eta lan egiteko adina duten pertsonentzat. Azken laguntza horien ardura Autonomia Erkidego bakoitzaren esku dago (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Foru Aldundiak eta Udalak).



Kotizazio gabeko pentsioak hiru motatakoak izan daitezke: Gizarte Segurantzakoak, Asistentzialak eta Gutxieneko Diru-Sarrerak Bermatzeko Dirulaguntzak. Azken bi pentsio mota horiek lehen motakoaren artean sartu dira orain, baina, hala eta guztiz ere, kobratzen ari zirenek kobratzen jarraitzen dituzte. Kotizazio gabeko pentsio guztiak asistentzialtzat har daitezke, bai premia-egoeran dauden pertsona edo familientzat direlako eta bai baliabide ekonomikorik ez dutela egiaztatu ondoren ematen direlako.

1989an Pobreziaren aurkako Plan integrala sortu zen EAEen. Plan horrek hiru eskuhartze-arlo antolatu zituen hasieratik:

Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrera (IMI), pertsona guztien diru-sarrerak gutxieneko muga baten gainetik daudela bermatzera zuzendua. Izaera subisidiarioa du, eta, behar denean, indarrean dauden legedian dauden gisa bereko beste baliabide eta/edo prestazio batzuekin batera kobra daiteke.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (AES). Laguntza ekonomikoak dira, oinarritzko gastu espezifiko jakin batzuei aurre egiteko ahalmenik ez duten pertsonen laguntzera zuzenduak.

Gizarteratze Programak aurreko neurriak osatzea dute helburu, gizarte, pres-

takuntza eta lan mailako integrazio programak eskainiz. Programa horiek bereziki lantzen dituzte gizarte zerbitzuekin, etxebizitzarekin, hezkuntzarekin, prestakuntzarekin, enpleguarekin, sanitatearekin eta -oro har- bizi kalitatearekin zerikusia duten alderdiak.

Maila horietako bakoitzak bere arauak ditu (Legeak, Foru Dekretuak, Aginduak, etab.). Prestazioak iraupen mugatua du, normalean 3 hilabete eta 3 urte bitartekoa, nahiz eta kasu batzuetan luzatu egin daitekeen. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren arabera, EAEn 16.191 pertsonak kobratu zuten IMI 1998an (10.481 Bizkaian). Kontuan izan behar dugu, alde horretatik, datuak familia onuradunei buruzkoak direla.

Gutxieneko errenta gizarte laguntzaren eremuko prestazio bat da, gizarte bazterketa eragoztera zuzendua. IMIren oinarritzko zenbatekoa (pertsona baten kasuan) 46.350 pezetakoa zen 1998an EA-En; zenbateko hori, dena dela, handitu egiten zen militarreko bakoitzeko. Lanbide arteko gutxieneko soldataren %40a eta %60a bitartekoa zen. Gizarte eskubidetzat hartzen ez denez, administrazioak egiaztatu behar du eskatzaileak betekizun guztiak betetzen dituela prestazioa kobratzeko. Gainera, kasu honetan ere familia da prestazioaren erreferentzia-unitatea, eta horrek segurutzat jotzen du fa-

militarrekoen arteko harremanak bake-tsuak eta elkartasunezkoak direla, gizabanakoen autonomia murriztuz.

Prestazioa jaso dezaketen pertsonei dagokienez, lau talde nagusi bereiz daitezke:

- Emakume bat buru duten guraso bakarreko familiak; programa guztien ehuneko handi bat dira. Hala, IMIko titularren %35 emakume bananduak edo dibortziatuak dira.

- Bakarrik bizi diren pertsonak; gehienak gizonezkoak dira, lehen aipatutakoak baino zaharragoak (45 urte baino gehiago); "Behartsuentzako aterpeen erabilitzaileen" profila dute.

- Kide anitzeko familiak, jarduera eta esparru marjinaletan bizi direnak; eta arazo sozialak dituzten familiak: langabezia, al-koholismoa, buruko osasun-gaitzak.

- Gainera, emakume bananduen eta dibortziatuaren proportzioa emakume horiek biztanleria orokorrean (emakumeen artean eta orokorrean) duten proportzioa baino nabarmenki handiagoa da.

Esan daiteke, horrenbestez, gutxieneko errentak jasotzen dituztenen artean pisu handia dutela guraso bakarreko famili buru diren emakume bananduek edo dibortziatuek. Horrek berresten du lehen aipatutako hipotesi bat, hots, emakumeak gehiago biltzen direla programa asistentzialetan, eta, alderantziz, gizonak eskubide sozialen bidez lortzen diren pres-

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik



tazioetan biltzen direla gehiago. Gainera, programen oinarria "famili unitatea" da, eta horrek emakume askoren autonomia-ri eta askatasunari erasotzen die: alde batetik, ezkontuta daudenak eta beraien senarren menpe daudenak ditugu; eta, bestetik, famili kargak izanda banandu eta beraien guraso edo aitona-amonen etxean bizitzera joan diren emakumeak, zeinak baztertuta geratzen diren. Horri datu esanguratsu bat gaineratu behar zaio: IMIko emakume gehienak 24 eta 44 urte bitarteko emakumeak direla, baita 45 urte baino gehiago izanda langabezian aldi luzea eman duten pertsonak ere.

Emakumeen pobrezia espezifikoa

5. Emakumeen pobrezia espezifikoa

Sexuaren araberako desberdintasun sozialak eta ongizate estatuaren desoreka konponbideak eskaini beharrean desberdintasunak handitzen baititu- agerian uzten dituen egoera bat "pobrezia feminizazioa" izeneko fenomeno da. "Pobrezia feminizazioa" terminoa zehazgabe eta konplexua da gaur egun, emakumeen pobreziaekin zerikusia duten egoera desberdinak deskribatzeko erabiltzen delako, desberdintasunak zehaztu gabe. Ikerketa feministek ahaleginak egin dituzte kontzeptua argitzeko, eta, alde horretatik, laguntza eskaini dute orain arte ezkatututa zegoen pobrezia mota bat azalertzeko: emakumeen pobrezia tradizional espezifikoa. Era horretan, "pobrezia feminizazioa" pobrezia buri buruzko ezagutzaren feminizazioa izango litzateke gehienbat, hau da, "emakumeen kontzientziaratzeko prozesu bat".

"Emakumeen pobrezia" termino orokorrak bi alderdi ditu: pobrezia tradizionala eta pobrezia berria; hau da, emakumeen pobrezia fenomeno zaharra da, baina azken hamarkadotan, krisialdi ekonomikoaren eta aldaketa demografikoen eraginez, pobrezia mota berri bat sortzen ari da, zeinaren eraginak klase ertaineko emakumeen artean ere sumatzen baitira. Oro har, bereizkuntza bat egiten da: alde batetik "pobrezia feminizazioa" dugu, eta bestetik "emakumeen pobrezia prozesua". Lehenengoak adierazten du pobreen artean gora egin duela emakumeen kopuruak edo proportzioak; bigarrenak, berriz, emakumeen bizi-estandarrrak okerrera egin duela adierazten du. Beraz, emakumeak -oro har- eta pobreak -zehazki- gero eta pobreakoak dira.

Pobrezia feminizazioa ez da "herrialde pobreen" fenomeno bat; aitzitik, herrialde "garatu" askotan emakumeak pobretzen ari dira, gero eta gehiago, haz-

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

kunde ekonomikoa eta gizarte segurantzako sistemen garapena gorabehera.

Krisialdi ekonomikoak herrialde industrializatueta emakumeengan izan dituen ondorioak bi instituzioren berrantolaketa bidez etorri dira gehienbat: ongizate estatuaren eta lan merkatuaren berrantolaketa bidez, alegia. Neurri handiagoan edo txikiagoan, gastu sozialaren murrizketak eragin nabarmena izan du emakumeentzat -modu zuzenean edo zeharkakoan- onuragarriak diren politikan. Beste alde batetik, emakumeek lan merkatuan duten ahulezia larriago bihurtu da, merkatu horretako arauak gero eta ahulagoak direlako eta malgutasuna hazi egin delako; horren ondorioak hauexek dira: emakumeen langabezi tasa modu nabarian igo da, eta, gainera, beraien lanak ezegonkorragoak dira eta lan horien soldadak txikiagoak, batez ere hezkuntza eta prestakuntza maila apala duten emakumeen kasuan.

Azken hamarkadotan familien egitura gertatu diren aldaketek (gero eta dibortzio eta banantze gehiago, gero eta alargun eta senarrik gabeko ama gehiago) ere ondorio larriak izan dituzte: gero eta gehiago dira famili buru diren eta, aldi berean, euren ardurapean seme-alaba txikiak edo beste pertsona batzuk dituzten emakumeak.

Familien egiturako aldaketa horiei dago-

kienez, bi egoera mota desberdin daitezke, ezaugarri desberdinak baitituzte. Hasteko, adineko alargunak (emakumeak) edo bakarrik bizi diren emakume nagusiak; emakume horiek pobre izan dira betidanik (batez ere beheko klasekoak), diru-sarrera propiorik ez dutelako edo/eta oso pentsio txikiak kobratzen dituztelako. Bizi-itxaropena luzatzeak ekarri dituen aldaketa demografikoek handitu egin dute biztanle-talde horren kopurua, hau da, lehen baino emakume nagusi pobre gehiago ditugu. Egoera hori are okerrago bihurtzen da langabezia eta baliabide propiorik gabe dagoen seme edo alabaren bat amaren etxera itzultzen denean.

Bigarren egoera guraso bakarreko familien fenomeno da, hots, guraso batez eta beraren ardurapean dauden haurrez osatutako familien fenomeno. Familia horien kasuan, gehienen burua emakume bat da, eta gizonarekiko lotura hautsi izanaren ondorioz sortzen dira (banantzea, dibortzioa, alarguntza edo ama ezkongabeak).

"Bakarrik bizi diren amen" taldeak desabantailak ditu baliabideen eremuan: diru, denbora eta sare sozial urri ditu. Gainera, politiken arduradunek talde "marjinalizat" hartzen dituzte emakume horiek, eta horren eraginez tratatu diskriminatzailea jasaten dute gizarte mailan.

Horren guztiaren oinarrian dagoen ara-

zoa garbi dago: gizarteak familiaren esku utzi eta irauarazi nahi duela pertsonak sortzeko eta zaintzeko ardura, ahal bezainbeste, erakunde publikoen laguntza ahalik eta gehien murriztuz. Esan dugunez, familien egituran gertatutako aldaketan eraginez gero eta gehiago dira emakume baten esku dauden guraso bakarreko familiak, eta horrek garbi uzten du emakumeak ezin direla aldi berean amak eta soldatuko langileak izan, ez dagoelako hori ahalbidetzen duen politika sozialik. Horrenbestez, babes sozialik ez dagoela ikusirik, emakumeak pobretu egiten dira dibortziazten direnean, eta, horren eraginez, garbi geratzen da pobrezia eta emakumezko guraso bakarreko familiak estu lotuta daudela elkarrekin. Pobreziaren feminizazioa garbi erakusten duen datu bat IMI kobratzen duten biztanleena da: %62,7a emakumeak dira eta %37,3a gizonak.

5.1. FAMILIEN EGITURAN GERTATUTAKO ALDAKETAK

Familien fisionomia aldatu egin da. Hiztegiak berak ere termino berri batzuk asmatu behar izan ditu, dela harreman mota berriak izendatzeko dela lehendik existitu arren gutxitan agertzen ziren beste batzuen esanahia zehazteko. Cogoratu, adibidez, bizikidetzeta, guraso bakarreko etxeak (familiak) eta pertsona bakarreko etxeak (familiak).

Errealitate berri horren oinarrian gertaera eta sorburu ugari daude, elkarri lotuak eta denbora berean gertatuak: ugalkortasuna jaitsi egin da (kontrazeptzioaren iraultzak bultzaturik), familien batez besteko iraupenak behera egin du (banantze eta dibortzioen ondorioz) eta bizikidetzeta (elkarrekin baina ezkondu gabe bizi diren pertsonak) hedatu egin da: hasieran ezkondu aurreko harreman gisa, gero "izatezko bikote" gisa, eta, azkenik, ezkontzaren osteko elkarrekin bizitzeko forma gisa.

Dinamika horiez gain, gogoan izan behar dugu bizi-itxaropena etengabe luzatzen ari dela. Horrek guztiak txikitu egin du familien neurria, eta, beste alde batetik, handitu egin du guraso bakarreko eta pertsona bakarreko familien kopurua. Ikus daitekeenez, aldaketa horiek guztiak funtsezko transformazioak ekarri dituzte berekin gizarte mailan, hainbestera non "familien gizartetik" "gizabanakoen gizartera" pasatu garela esan daitekeen.

Laburbilduz, aldaketa demografiko, ekonomiko eta sozialek eragina izan dute familian, instituzioa den aldetik: familia mota desberdinak sortu dira, egitura aldatu da, eta arazo berriak sortu dira (guraso bakarreko familiak, bikotea banandu izanaren eraginez sortuak) edo lehengo arazo batzuk larriagotu (bakarrik bizi diren pertsona nagusiak).

8. Babes sozialari buruzko apunteak, generoaren ikuspegitik

BIBLIOGRAFIA

MONOGRAFIAK

- . Cristina Carrasco; Anna Alabart; Maribel Mayordomo; Teresa Montabut. "Mujeres, trabajos y políticas sociales: una aproximación al caso español". Universidad de Barcelona. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Instituto de la Mujer, 1997.
- . Equipo de trabajo, Mikel Gómez Urana... (eta al.). "La protección social en Euskal Herria". Manu Robles-Arangiz Institutoa. Bilbo, 1995.
- . Juan José Fernández Domínguez. "La mujer ante el Derecho de la Seguridad Social; antiguos y nuevos problemas de la igualdad de trato por razón de sexo". Ed. La Ley Actualidad, Madril, 1999ko azaroa.
- . Margarita Ortega; Cristina Sanchez; Celia Valiente (eds.) "Género y ciudadanía: Revisión desde el ámbito privado". 313.-340 orr. Instituto Universitario de Estudios de la Mujer, Universidad Autónoma de Madrid, 1999.
- . Susana Torrente Gari. "La mujer y la protección social". Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Subdirección General de Publicaciones. Madril, 1999.
- . Var. Autoras. "Las mujeres vascas y las políticas de empleo". Ipar Hegoa fundazioa, 1999.

TESTUAK

- . Cristina Carrasco. "Género y valoración social: la discusión sobre la cualificación del trabajo de las mujeres".
- . Celia Valiente. "Género, mercado de trabajo y Estado de bienestar: el caso de España". 1ª parte.
- . Celia Valiente. "Género, mercado de trabajo y Estado de bienestar: el caso de España". Noticias obreras, 1236. zkia., 1999.
- . Inmaculada Cebrián López; Juan Francisco Jimeno Serrano. "Situación familiar y situación laboral". Papeles de Economía Española 77. zkia., 1996.
- . Sandra Lerda; Rosalba Todaro. "¿Cuánto cuestan las mujeres?": un análisis de los costos laborales por sexo". Política y sociedad. Rev. Cuatrimestral de CC.SS. Universidad Complutense, 22. zkia., 1998.
- . LAB Emakumeak. "Prestaciones de la Seguridad Social".
- . CES. "Memoria Socioeconómica 1998". Cap. de protección social. (325.-356. orr.).
- . Jurado, Nekane. Ezpala aldizkaria, 0. zkia.